

ELKARRIZKETA: ANDONI IÑARRA, LUTHIERRA

Arrasate

P R E S S

2000.eko
ekainaren 2a
498. zenb.

Jakintzara ikuspegia

Humanitate Fakultatea

IKUSPEGIA: KARMELE PEREZ • EUREN IKUSPUNTUTIK: EUGENIO ITURRIOTZ
KIROLAK: ERRUGBI TOPAKETAK • KULTURA ELKARRIZKETA: KAÑERIA 13

Etorkizuna zure esku



Ematen ditugun motak

- Natur eta Osasun-Zientziak.
- Giza eta Gizarte Zientziak.
- Teknologikoa.

Bide irekiak

- Ikasle bakoitzari egokitutako Bideak ditugu.

Hizkuntzak

- Ingelesa.
- Frantsesa.

Modalitate eta Aukerakoetan eskaintza zabala

- Laborategi teknikak.
- Elektroteknia.
- Mekanika.
- Psikologia.
- Antropologia.
- Ekonomia eta enpresa antolaketa.
- Iharduera fisiko, aisialdi eta osasuna.
- Ordenagailu bidezko marrazketa eta diseinua.



Erdi Mailako Zikloak

- Ibilgailuen elektromekanika.
- Erizaintzako zaintza osagarriak.
- Soldadura eta Galdaragintza.
- Mekanizazioa.
- Kontsumorako ekipa elektronikoak.



Goi Mailako Heziketa Zikloak

- Galdaketa eta Pulbimetalurgia bidezko produkzioa.

Matrikula egiteko epea

MATRIKULA
Batxilergoa Uztailaren 3tik 10era
Heziketa Zikloak Uztailaren 3tik 7ra

Berdin eta desberdin

Noizbait, beste nonbaitetik etorri nintzen eta hemen gozo hartu ninduten. Gozo hartu ninduten eta nirea ez zen hizkuntza erakutsi zidaten. Eta nirea ez zen hizkuntza hura nire egin zen. Eta nirea ez zen herri hura nire etxe da orain. Hemengoa eta euskalduna naiz gaur: Perez eta euskalduna.



Karmele Perez

Eta Perez izanik euskalduna naizelako diot hau guztia, beharbada; desberdin nintzenean onartu nindutelako, beharbada; atzerriratu izanik herritartu nintzelako, beharbada; ezberdinke-riaren historia bukatu ez delako, beharbada... beharbada.

Historiak, behin eta berriz, dikotomiaren paradigma erakusten digu: gose eta asearen historia, arrotz eta herritarren historia,

menperatu eta menperatzai-leen historia, kanpoko eta etxeko historia, pobre eta aberatsen historia... inon idazten ez den historia.

Idazten den historia kopurutan islatzen baita, izen, eraikuntza eta irabazi erraldoietan islatzen baita, irabazle eta ahalguztiduna- ren boterean islatzen baita. Ez da integrazio-hitzetan idazten; ez da elkartasun-

lerrotan idazten; ez da lankidetzazutabetan idazten; ez da bizikidetzaditorialetan idazten.

Idazten den historiak ez digu erakusten ikasi eta eraiki nahi dugun berdintasuna.

Berdintasuna, gaur, eredu globalizatu eta zanpatzaile baten ezaugarria da, mundua eta boteretsuak handiago, garatuago eta aberatsago egiten dituen, baina pertsonon arteko diferen-

tziak eta lurraren hondamena areago- tzen dituen.

Ezberdintasuna, berriz, ez da ulertzen, eta ulertzen eta kontrolatzen ez den orori beldur izaten zaionez gero, ezberdin den oro zokoratu edo bota egiten da. Beti izan da horrela.

Berdintasuna berdinkeria bihurtu zaigu, legezko parametro hotz, zikoitz eta interesatua. Ezberdintasuna, ezberdinkeria dugu orain, gaitzetsia, zigortua..

Nik neuk aldi berean berdin eta ezberdin izan gaitezen nahi nuke: berdin, erabakitze eskubidean eta ahalmenean; ezberdin, berriz, pertso- na eta komunitateen izaeran eta ametsetan. Dikotomia berriz ere. Dikotomia duina, baina.

Nonbait, oroimenaren txokoren batean gordeta geratu den historia delako diot hau guztia, beharbada; pertsonon eta herrion arteko biziki- detza utopia bihurtzen ari delako, beharbada; ezberdintasunean berdin eta berdintasunean ezberdin izan gaitezen nahi dudalako, beharbada.

Idazten den historiak ez digu erakusten ikasi eta eraki nahi dugun berdintasuna

“Gure kantuetan politika apenas ukitzen dugu, guztia esanda dagoelako”.

Kañeria 13

ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS
Argitaratzailea: ARKO (Arrasate
Komunikabideak) Oñalora kalea, 31
20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 25 11, Faxa: 943 71 23 89
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Marijo Deogracias. **Kazetariak:** Ubane Madoza, Maider Osa, Leire Kortabaria eta Gorka Etxabe. **Publizitatea:** Nerea Zallo. **Arantzazu Lagunilla, Arantzazu Arroilahe.** (Tel.: 943 71 23 91/ 943 71 23 92). **Zuzentzailea:** Sergio Azkarate. **Administrazioa:** Agurtzane Gainzarain, Ane Bereibar (Tel.: 943 71 23 90). **Diseinua:** Maddi Trubuelo. **Asteburuetako berriemakalariak:** Izaskun Salazar eta Xabier Urzelai. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Karmelo Perez, Nekane San Migel, Iker Ezpeleta eta Udaleko Gaztiena Salla. **Banaketa arduraduna:** Naiara Odriozola-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.500. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. **Franko konzertatua.** **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkariaren adierazitako esanetan eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Humanitate Fakultatea.

120

lagun joan zen Arrasateetik Lourdesera erromesaldian.

Bi autobus eta erdi bete zituzten eta “Gipuzkoako Eguna” ere ospatu zuten.

Bidaia Donostiako Gotzaindegiak antolatutako eta eukaristia eta gurutze bidea egin zuten; eta, nola ez, Lourdesen egonda, gaixoen bedeinkapena.

AURKIBIDEA

- Ikuspegia **3**
- **Berdin eta desberdin**
- Euren ikuspuntutik **4**
- **Presoen gose greba**
- Inkesta **5**
- Irakurlea idazle **6/7**
- Asteko hitzorduak **8/9**
- Astearren errepasoa **10**
- Orain eta hemen **11/12**
- Txutxumutxuak **13/14**
- Aurrez aurre **16/17**
- **Andoni Iñarra**
- Asteko gaia **18/20**
- **Euskara eta hezkuntza, bikote oparoa**
- Zaldibar **22/23**
- Kirolak jokoan **24/25**
- Eskola kirola **26**
- Kulturaren txokoa **27/29**
- Ikusi eta entzun **30/31**
- Azoka plaza **32/33**
- Foto zaharra **34**

USTEAK USTE

Moduak al dira horiek?

Asteazkenean Pedrotxo ekarri zuten etxera bere amandrea ikus zezan. Oso gaixo dagoela eta, hiru orduko bisita egiteko ekarri zuten Langraitzetik.

1995etik kanpoan beharko luke, zigorraren 3/4ak beteak dituelako, baina Espainiako espetxeko arautegia behar bezala betetzea ez dutenez, "barruan" segitzen du.

Etxera ekarri zutela kalean jakin genuen; inork ez zuen alde zurretik hori gertatuko zela jakiteko aukerarik izan. Horrelakoak ixilean izatea komeni da, bestela imajinatu gerta daitekeena: lagunak, ezagunak, solidarioak edo beste-rik barik, jakinmina dutenak, bere amandreen etxearen inguruan... zenbat jende elkartuko zen, jakin izango bagenu... Antzuolan, Patxi Olabarria ekarri zutenean, bere amandreen hileta elizkizuna zela eta, jende inguratu zen abadetxea hango leihora ateratzen utzi ziotelako han bildutakoak agurtzeko. Egokia iruditu zitzairen Ertzainei hori egitea jendeak horixe eskatu zuelako. Asteazkenean, ordea, Pedrotxo etorri zen eta joan ere egin zen... Noiz arte?

Marijo Deogracias



Presoen gose greba

* Eugenio Iturrioz

Presoek gose greba mugagabea hasi zutenean, galdera asko egin nizkion neure buruari: zer eragingo du beren osasunean? bateren bat hilko da? euskal gizarteak erantzun egokia emango du? IRA-ko presoek burutu zuten gose grebari buruzko "Semearen Izenean" (Some mother's soon) filmaren irudiak behin eta berriro etortzen zitzaizkidan, emozioz gainezka, kezkatuta.

Gose greba, bere ondorioak... ez da gai erraza lerro pare baten azaltzeko. Gainera, ez da gauza bera norberaren burua aste pare bateko baraualdi baten moldatzea edo gose greba mugagabe baterako prestatzea.

Gose grebaren zehar suertatzen diren sentzazio eta esperientziak modu pertsonalean gauzatzen dira. Batzuk estu eta larri igaroko dituzte lehenengo egunak. 15-20 egunerako nolabaiteko "estabilitate"ra iristen dira. Beste batzuei, gosearen sentzazio fisikoa ez zaie luzez aldenduko.

30. egunetik aurrera, ondorioak larriak izan daitezke. Gantz depositoa ahi-tu direnez, gorputzak bere barneko ehunak hasten da metabolizatzen. Metabolizazioa orden jakin batean gertatzen da, garrantzi txikiena duten gantz eta ehunetatik hasita: lehenengo, gantzak; ondoren, muskuluak galtzen dira (horregatik kalanbreak); gero hesteak (botaka egiten da eta ura ezin da edan); ondoren, giltzurrunak (edemak agertzen dira) eta azkena beti garuna izango da.

Ahulezia nagusitzen doan heinean, sentimenak ere apaltzen doaz. Zenbaitetan burua

argitasun harrigarri batean murgiltzen da; garuna da organo garrantzikoena eta azkenean, bakarrik kaltetzen dena.

40. egunetik aurrera, aldi kritiko batean sartzen gara: giltzurrunak ez dute ondo funtzionatzen, edemak agertzen dira, ultzerak eta okadak, bihotzaren gutxietasuna eta infekzioen arriskua igotzen da (defentsa gutxi izaten direlako).

Eguneroko berria da, preso batek gose greba utzi duela, urik ez duela onartzen, odol jariora edo sukarra duelako. Drama izugarria ari da gertatzen gure aurrean.

Nahiz eta gose greba utzi, behin aldi kritikoa pasatuz gero, funtzioak errekuperatu arte, arriskua ez da desagertzen. Hilabeteak daramatza.

Errekuperazio-prozesuak oso motelak dira: hasieran kopuru txikian jan egin behar da, gatz gutxi hartu.

Gose greba mugagabea hasi zenetik sei hilabete pasatu dira eta hasierako galderei erantzunez: oraindik inor ez da hil, baina batzuk oso gertu egon dira (Dergui eta Arizkuren) eta gehienen osasun galerak handiak dira. Bestalde, presoek sakrifizio mailarekin alderatuta, euskal gizartearen erantzuna ez da izan oso egokia. Ea denok ematen dugun zerbait, gutxi batzuk, dena (bere bizia), eman behar ez dezaten.

Nahiz eta gose greba utzi, aldi kritikoa pasatuz gero arriskua ez da desagertzen

* Medikua



Zoruak • Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak • Leihoak • Ateak • PVCko leihoak • Aluminiozko leihoak • Eskailerak • Armairu Enpotratuak...

GREMIOEN KOORDINAZIOA

Erakusketa eta biltegia: Kale Txiki, 3 - behea • ARRASATE Tel.: 943 77 11 20 • Faxa: 943 77 11 20

HIES BERRIA
Tel.: 943 79 26 99

Ezagutzen duzu Arrasateko sexologia bulegoa?

Garibai etxeko sexologia bulegoak bere ordutegia zabaldu du.



Kepa Arkauz
(16 urte)
Ikaslea

Badakit dagoela baina ez dut ezagutzen, ez naiz sekula egon.



Manuela Barranca
(53 urte)
Etxekoandrea

Ez dut ezagutzen. Ez nekien sexologia bulegoa zegoenik ere.



Haika Aizpurua
(17 urte)
Ikaslea

Badaukat entzunda, baina ez dakit non dagoen. Oraingoz ez dut joateko premiarik sentitu.



Ana Mari Garcia
(46 urte)
Etxekoandrea

Ez naiz sekula joan, baina badakit Arrasaten sexologia bulegoa dagoela.



Maria Dolores Jauregi
(59 urte)
Erretiratua

Ez dut ezagutzen, baina badakit dagoela, eta baita non dagoen ere. Dena dela, Montterongo hitzaldietan eta egona naiz.



Amaia Egido
(25 urte)
Etxekoandrea

Ez dut ezagutzen, Gasteizen bizi naiz eta.



Adolfo Aguado
(33 urte)
Langilea

Badakit non dagoen, baina ez naiz sekula egon.



Josu Rodriguez
(16 urte)
Ikaslea

Bai, ezagutzen dut. Dena dela, ez naiz sekula joan.

Focus TDdi

Injekzio zuzena
1.975.000 pta.

Prever plana
eta deskontuak barne

MUGARRI

943 79 07 44

ZENTRU PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judicialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Trataera txar fisiko edo psikikoak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 • Tel.: 943 79 48 77 • ARRASATE

AL

ILE APAINDEGIA

Alfonso X jakintsua, 1 behea
(Grupo San Juan)
Tel.: 943 79 79 65

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00
Iguualatorria 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) 943 79 39 00
(emakumeak) 943 79 44 11
Buru osasunerako zentrua 943 79 90 11

Larrialdiak

SOS Delak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

Anbulatorioak

Guardiako medikua 943 46 11 11
Arrasate
• Txanda hartzeko: medikuntza
orokorra eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak 943 03 53 11
• Ikuskatzailea 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak: 943 03 53 11
Aretxabaleta 943 79 74 58
Aramaio 945 44 53 40

Anbulantziak

Gipuzkoako ambulanziaz 943 45 87 44

Udaltzaingoa

Oñati 943 78 04 11
Bergara 943 77 91 06
Arrasate 943 79 14 39
Aretxabaleta 943 79 10 52
Eskoriatza 943 71 44 07

Ertzaintza

Arrasate 943 79 71 99

Suhiltzaileak

Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea 088

Matxurak

Urak (udal zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
..... 943 79 78 44
..... 943 79 76 78

Garraioak

Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

Hirugarren adinekoentzako zentruak

Iturbide Egoitza 943 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

Monterron liburutegia

Monterron 943 77 01 05

Irratia

Arrasate Irratia 943 79 58 77

SAMANIEGOKO INTERPRETazio ZINEGETIKO-RAKO MUSEOAREN AURKA

Arabako Lurralde Historiako Batzar Nagusiek aginduta, Arabako Foru Aldundiak Interpretazio Zinegetikorako Museoa ireki nahi du Errioxako Samaniego herrian. Museo horretan, diseinatutako animalia basati osoak eta atalak (adarrak, buruak, hankak...) erakutsiko dira; besteak beste, elefanteak, jirafak, lehoiak, hipopotamoak eta abar; guztiak ere hilda dagoen Jose Mari Arregi industria gizon arabarrak bere jarduera zinegetikoan bildutakoak.

Ekologistak Martxan-ek eta Animaliei Tratu Etikoa ematearen aldeko Elkartek uste dugu proiektu hau kaltegarria izan daitekeela gure gazteen eta herritarren hezkuntza eta prestakuntzarako; izan ere, erabat suntsikorra den jarduera bat, kirol-ehiza alegia, eta zehatzago ehiza larria, sustatzeaz gain, museo horrek transmitituko luke animaliak guk erabili eta gozatzeko izakiak direla, denok errespetatu beharreko izaki indibidual eta sentikorak direla erakutsi beharrean. Animalia horiek, hiltzeak batzuei ematen dien gozamen hutsagatik baino ez ziren ehizatu eta, gainera,

horien heriotzak sarraskia eragin zuen gaur egun desagertzear dauden espezieen artean.

Horrela bada, museo-proiektu hori martxan jartzeak esan nahiko luke erakunde arabarrek jarduera zaharkitu, krudel eta alferreko hori bultzatu egiten dutela.

Museoa, 210 milioi pezeta inguruko kostua izango duena, "hezigarria" izaten saiatuko dela diote, animalien habitata birsortzen ahaleginduko direlako. Baina, nola da posible habitata bisortzea animalien gorpuekin? Nolako baloreak transmititu nahi zaizkie gazteei pribilejio eta bitarteko ekonomiko batzuek baliatuta alferrik eta krudelki hil ziren animaliak erabiltzen badira?

Zorionez, gaur egun badaogo aukera gizakiak ez diren animalien bizitza filmaturiko dokumental zoragarrien bidez edo Internet, liburu zein beste bitarteko batzuen bidez ezagutzeko, beraiekiko errepesitu handiagoa izateaz gain, askoz ere hezigarriagoak direnak. Gogorra da benetan ikas-tetxeek hain gogo handia agertzea ikasleak hiltzak ikustera eramateko, kontuan izanda horren bitartez gazteei animaliak gure jabetzakoak eta nahi dugun bezala erakusteko direla transmititzen zaie-la eta, era berean, ehizaren jarduera krudel eta ez beharrezkoa bultzatzen dela.

Izan ere, kirol-ehiza animaliak hiltzearen plazer hutsean oinarritzen da; ez du ez justifikazio zientifikorik ez eli-

kadurazkorik. Animalia basati bat plazer hutsagatik hiltzea bizitzaren aurkako atentatua da eta debekatuta egon behar litzatekeen ezmoraltasun justifikaezina.

Gure ustez, erakunde publikoaren zeregina da herritarrak kontzientziatzea eta herritarren artean gainerako animaliekiko izan behar duten errespetua bultzatzea.

Ildo horretatik, berriro gogoratu nahi dugu Animalien Eskubideen Aitorpen Unibertsalaren testua:

d) Animalia orok du errespetatua izateko eskubidea.

e) Espezie basatietako animalia orok du bere ingurune naturalean aske bizi izateko eskubidea.

f) Askatasun-murrizketa oro, baita hezkuntza-helburua duena ere, eskubide horren kontrakoa da.

g) Hildako animalia errespetuz tratatu behar da.

*Ekologistak Martxan
eta Atea*

GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

Ostirala, 2

- Zabala, Zarugalde

Larunbata, 3

- Ruiz, Maalako Errabala

Igandea, 4

- Morales, San Andres

Astelehena, 5

- Azkoaga, Ferrerías

Asteartea, 6

- Azkoaga, Iturriotz

Asteazkena, 7

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

M

MEMESA

Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25

UGARAN

jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

PRESOEN ESKUBIDEEN DEFENTSAN, GOSE GREBA MUGAGABEA

Gaurko egunean, hemen azaltzen garen bi solidariook hurrengo egunetan aurrera eramango dugun ekimenaren berri eman nahi dizuegu, zeintzuk diren gure arrazoiak, zertan datzan, helburuak...

Azken urteotan presoekiko solidarioen ekintzak ugartu egin dira. Figura berri honen azalpenarekin mobilizazioei zentzu berri bat eman nahi izan zaie, beti ere preso-en eskubideen defentsan eta eskubide hauek zapaltzen dituztenak salatuz. Presoen eskubideen defentsan diogunean, eskubide hauek ez dira beraien legedian onartutako eskubideak baizik:

- **Euskal presoak Euskal Herrira.** Nahiz eta legeak esan presoek bere bizikiletatik gertuen dauden espetxeetan egon behar dutela, hauek estatu espainiar eta frantziarrean zehar dispersatuta daude, hau, presoarentzako eta bere familiarentzako erantsitako zigorra delarik.

- **Zigorraren 3/4ak bete dituztenak kalera.** Beraien legediaren beste puntu batek dio, zigorraren 3/4ak bete-ta dituzten presoak kalean egon beharko luketela, eta hor dauzkagu 97 preso legez kanpo bahituak. Gure herrian zehazki lau: Pedrotxo 95etik, Jon 96tik, Goio eta Zabarte 99tik.
- **Gaixotasun sendaezinak dituzten presoak etxera.** Hau ere aipatzen du legedi horrek, baina ez dute bete-tzen.

Edozeinek ikus dezake beraien legedia ez dutela inolaz ere betetzen eta nahi dutena egiten dutela. Presoekiko solidarioek egin dituzten eta egiten dituzten ekintzekin, hau guztia salatu eta eskubide hauek bete ditzatela aldarrikatzen dute.

Filosofia hori gureganatuz azaldu gara hona. Kareta hauen atzean ez dugu anonimatoa gorde nahi, edozein herritarren itxura hartu baizik. Hala ere, uste dugu, herritarrak ordezkatzen gaituzten heinean, erakunde politiko, sindikatu eta abarren aurpegiak egon beharko lirakeela preso-en eskubideen defentsan.

Herri honek behin eta berriro aldarrikatu du euskal preso-en eskubideen alde dagoela, hor daude mobilizazioak, deklarazio instituzionalak eta abar luze bat. Baina zer egin digute? Barre. Behin eta berriro, Presoen eskubideak zapaltzen dituzte eta gure herrian hartutako erabakiari iseka egiten diote, eta egia esan, Euskal Herriko adardi eta erakundeak horri aurre egin ordez, "impass" egoera batean erori direla uste dugu.

Ez dugu ahaztu behar presoek oraintsu amaitu duten ekimen gogorra; gose greba mugagabe bati ekin behar izan diote (horrek dakartzan ondorio latz eta atzeraezin guztiekin) euren eskubideak errespetatuak izan daitezen. Zergatik, eskubideak badira?

Horren guztiaren aurrean, preso-en eskubideak zapaldu-ta, baita Euskal Herriaren hitza

ere, zerbait egiteko garaia hel-du zaigu guztioi. Guk hartu dugu erabakia: gose greba mugagabe bati emango diogu hasiera. Ekimen hau burutzen dugun bitartean erakunde politiko, sindikatu, giza eragile eta abar guztiekin egoten saiatuko gara, bakoitzak bere konpromisoa har dezan. Guztiekin, salbuespenik gabe, garbi baitaukagu gizartaren preso-ak ekarriko dituela presoak eta presio hori lortzeko guztion indarra behar beharrezkoa dugula.

Arrasateko presoekiko solidario taldea.

IRATI TABERNA

Ferrerias kalea • Tel.: 943 79 56 11
ARRASATE



PEUGEOT

Salmenta eta zerbitzua

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

2

ostirala

■ ZINEMA

Inocencia Interrumpida.
Alai zineman: 19:00 - 22:00.

■ KONTZERTUA

Goikobalu Txikik, Orioko Udal Musika Eskolak eta Arrasate Musikaleko Akordeoi Orkestrak kontzertua eskainiko dute. Amaia antzokian, 19:30.

■ GARAGARDO FESTA

Nazioarteko Errugbi Topaketen barruan, II. Garagardo Festa izango da herriko plazan. 19:00etatik aurrera goizaldera arte, ostiral eta larunbatean.

■ KONTZERTUA JAMEN

Los Suaves taldeak kontzertua eskainiko du Jam aretoan: 22:00.

3

larunbata

■ ZINEMA

Elmo en el País de los Grullones, 17:00etan, eta *Las Vírgenes Suicidas*, 19:30ean eta 22:00etan, Alai zineman.

■ ERRUGBI TOPAKETAK

Nazioarteko Zazpinako II. Errugbi Topaketak ospatuko dira, Atxabalpen. Goizean jubenetako partidak, eta 15:00etatik aurrera, helduen topaketak.

■ ÑACO GOÑI GO-JAMEN

Ñaco Goñi y los Bluescavidas taldearen emanaldia izango da Bergarako Go-Jamen, 22:30ean.

4

igandea

■ ZINEMA

Elmo en el País de los Grullones, 17:00etan, eta *Las Vírgenes Suicidas*, 19:30ean eta 22:00etan, Alai zineman.

■ ESKORIATZA-ARRASATE

Eskoriatzako plazatik Eskoriatza-Arrasate herri-krosa irtengo da: 12:00.

6

asteartea

■ ZINEMA

Las Vírgenes Suicidas.
Alai zineman: 19:00 - 21:30.

8

osteguna

■ ZINE-KLUBA

Segunda Piel eskainiko da. Amaia antzokian, 21:30.

■ PELLO ZABALA

Pello Zabalak eguraldiaz hitzaldia eskainiko du Aretxabaletan. Udaletxe Zaharrean, 19:00etan.

■ THE FLESHTONES

*The Fleshtones*en kontzertua. Jamen. 22:00.

5

astelehena

■ ZINEMA

Las Vírgenes Suicidas.
Alai zineman: 19:00 - 21:30.



Erdiko kale, 32 • ARRASATE • Tel.: 943 79 16 12

R.M. ZUAZOLA-LARRAÑA
Gñatik b.h. institutua

2000-2001 Eskaintza

HEZIKETA ZIKLOAK ("D" EREDUA)

- Erdi Maila:
 - Mekanizazioa
 - Landa eta Ingurunean Gorputz eta Kirol Ekintzak Gidatzea
- Goi Mailakoa:
 - Gizarte eta Kultura animazioa

IZENA EMATEKO EPEA:
Ekainaren 1etik 12ra
TOKIA:
Larraña Ikastetxea
Tel.: 943 78 21 50
Faxa: 943 78 19 08

ARTISAU ETA BASERRITAR AZOKA



Joxebi Ramos

Domekan, Artisau eta Baserritar Produktuen Azoka izango da Eskoriatzako Plazan, Jose Arana Ikastolak antolatuta. Baserriko jaki eta artisautza lanetaz gain, Jose Arana eta Almeneko ikasleek euren salmenta tokia izango dute, 11:00etatik aurrera.

Horra hor egitaraua:

- 10:30** Etxafleroak eta azoka hasiera.
- 11:00** Haurren txokoa.
- 11:30** III. Txorimalo Lehiaketa eta trikitilariak.
- 14:00** Errifa eta postuei sari banaketa.

SAN FRANTZISKO XABIER EGUNA

Zapatu honetan, Arrasateko Ikastolak bere egun handia ospatuko du. Ferixalekuan, 10:30etik aurrera, jai giroa eta ondo pasatzeko aukera mordoa izango dituzte hurbildu nahi duten mondragoetar guztiak:

- 10:30** Etxafleroak eta kirolak.
- 11:00** Puzgarriak, txokoak, tailerrak...
- 11:30** Gastronomía feria. Herri kirolak, ikasleen parte hartzearekin.

■ **GIDARIANTZAKO OHARRAK**

Zapatuan, Maalako biribiletik Uarkapeko pilotalekuraino ezingo da aparkatu 8:00-14:00 bitartean, SFX eguna dela eta, Arrasateko Ikastolek jaia egingo dutelako.

Domekan, Mikel Lasatik Mondragones kalera arte, ezingo da aparkatu 8:00-13:30 bitartean, Eskoriatza-Arrasate lasterketagatik.

■ **NA BERRIZTAPENIK EZ DATOZEN HILABETEOTAN**

Udalak jakinarazten du datozen hiru hilabeteotan ez dela NAren berriztapenik egingo.

■ **ZAHARKINAK ANTZUOLAN**

Antzuolako Udalak *Zaharkinak* erakusketa antolatu du ekainaren 11ra arte. Herriko baserrietan bildutako garai bateko tresnak eta lanabesak bildu dituzte Aranzadi elkarteak eta horietxek jarri dituzte ikusgai herriko pilotalekuan. Asteburuetako ordutegia 11:00-14:00 eta 17:00-20:00 da. Asteazkenean zehar bisita gidatuak egin daitezke. Deitu 943 76 62 46.

■ **LUZAPENA**

Gipuzkoako Erreklutamendu Zentroak ikasketengatik luzapena eskatzeko epea zabaldu du. Udaletxean egin beharko da, ondoko egun eta orduetan: ekainaren 1etik 15era, 10:00-12:00, 15:30-18:00 eta, ostiraletan, 10:00-13:00. Ekainaren 19tik uztailaren 20ra arte, 10:00-13:00.

■ **EKOLOGISTEN IBILALDIA**

Harrobien aurkako kanpainaren amaitzeko ekologistek eta mendi elkarteek mendi irteera antolatu dute ekainaren 10ean. Arrasate-Kanpazar-Besaide-Kobate-Arrasate izango da irteera, goizeko 09:00etan Portaloitik.

■ **LANBIDE HEZIKETA EUSKARAZ**

Euskal Irakaskuntzaren Aldeko Ekimenak Lanbide Heziketa euskaraz eskatzeko sinadurak biltzen ari da, tabernetan, AEDn eta AEKn. Ekainaren 9an kale agerraldia egingo dute Seber Altuben, 19:30ean.



Bea

Barrutik janztearen plazerra

zabaldu berria!

Otalora Lizentziatua, 21 • Tel.: 943 79 21 05



astea bi hitzetan

■ Kanpanzarren kontra

Kanpanzarreko harrobiaren aurkako protesta egin zuten larunbatean hainbat lagunek. Arrasate eta Elorrio lotzen duen bidea itxi, auto gidarien artean esku orriak banatu, harrobiaren aurkako pankarta bat ireki eta ibilalditxo bat egin zuten inguruan.

Protesta ekintza antolatu zuen ekologista taldeak ez du onartzen harrobiak inguruko paisaian sortzen duen kaltea. Gainera, beraien hitzetan, legez kontra lan egiten ari dira harrobian, Eusko Jaurlaritzak baimendutako 700 metrotik

gora jo baitu eta Udalatx mendira joateko bide bat hondatu du.

■ Jende ugari kalean

Ostegunean jende ugari irten zen kalera, presoek eskubideen alde. Greba deialdiarekin bat eginez, lantoki gehienetan bi orduko lanuzteak egin ziren egunean zehar. Zenbaitzuek greba orokorra ere egin zuten.

Eguerdian, jende ugari bildu zen Seber Altubetik irten zen agerraldian, eta baita iluntzean ere.

Aipatzeakoa da, bestalde, PESAko autobusak presoek aldeko aldarrikapene-

kin margotuta agertu zirela; Mondragoen gordetzen diren autobus denak margotu zituzten asteazken gau aldean, 21, hain zuzen ere.

■ IFAM lekuz aldatzen

IFAM enpresa lekuz aldatzen dabil makineria guztia. Helburua, San Joan jaien aurretik Gipuzkoa Etorbideko enpresa utzi eta leku berria inauguratzea da, A 20 eremuan dagoena. 4.000 metro karratu ditu enpresak eta zerbitzu aldetik ere eskaintza hobea du.

Kamioien sartu-irtenak egiteko askoz egokiago izango ditu sarrerak.

■ Elkartasun Eguna

Debagoieneko gobernuz kanpoko erakundeek Elkartasun Eguna egin zuten zapatuan Mondragoen. Hirugarren Munduko errealitatea azaldu nahi izan zuten modu horretan. Elkartasunarekin lotutako zenbait ekintza antolatu zituzten; besteak beste, Bidezko Merkataritzako produktuak ikusi eta dastatzeko aukera izan zen.



“ Niri zera esaten baldin badidate: «kurtsio ikaragarri polita dago, eta egin behar duzu, zu euskalduna zara eta abertzalea, baina 175.000 pezeta ordaindu behar duzu»... Egiteagatik eginez, ez goaz inora. Hemen dena saldu eta erosi egiten da. Eusko Ikaskuntzak ez du ezer asmatu, komeni zaizun zerbait erosten duzu, titulu bat esaterako. Gero titulu horrekin zenbait estatus, maila, igo ahal izateko. Momentu horretan kulturarengatik saldu nahi izatea burugabekeria da.

Guk astero edo hamabostero daukagu kurtsio bat presentzian. Demagun Itsas antropologia jardunaldiak Miarritzen. Oso polita, baina zazpi joango dira. Euskal Herriko Unibertsitateak bi kreditu emango dituela iragarri zera, bete egingo da. Hori errealitatea da hemen eta mundu osoan”.

JM V. DE MENDIZABAL

Gara
(2000.5.30)

DOTAKON

Ekainaren 1etik aurrera



**LIKIDAZIO
OSOIA**



Otalora lizentziatua, 1
ARRASATE
Tel./Fax: 943 77 16 92

**BASABE
JATETXEA**

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Tel.: 943 79 91 84

ARETXABAETA

**FELIPE
MADINA
ZURAK**

Zarugalde, 40 ARRASATE
Tel.: 943 79 13 78

Aparkaleku gehiago Otaloran

Otalora kalean aparkalekuak egiteko proiektua onartu du Udalak. Aparkalekuekin bate-ra telematika, zerbitzu, argiteri eta ureztatze sareetako eroanbideak ere ipiniko dira.

82 aparkaleku egingo dira kalearen erdialdean; dagoeneko egina dago bat, baina hori, froga bat besterik ez da. Orain, legeak kalearen erdian aparkalekuak egiten uzten duela ziurtatzea falta da aurrera egin baino lehen. Aparkalekuak bi norabidetakoak izango dira eta tartekatu egingo dira. Behin baimena lortuta, Udalak udazkenerako lanak bukatuta egotea aurrez ikusi du.

Herrian dagoen aparkaleku faltari aurre egitea eta udal sareak hobetzea da lan hauen



Udazkenerako lanak amaituta egotea espero da.

helburua. Batetik, telematika sarea Udalaren egoitzetara eramateko (Monterron, Amaia Antzokia eta ARKORa) eta bestetik, zerbitzu, argiteria eta ureztatze sareak luzatzeko. Aurrera begira egon daitezkeen beharrei aurrea hartzea da Udalaren asmoa.

19.872.482 pezeta inbertituko dira lanok egiteko. Hauetatik 13.320.048 pezeta aparkalekuak egiteko izango dira, 3.832.800 telematikako zerbitzuetarako, eta geratzen dena, 2.719.634 pezeta, lorategi eta argiteria lanetan gastatuko da.

Enpresa berriak

Aurten ere, enpresak sortzeko egitasmoaren deialdia egin du Saiolanek. Enpresa bat abian jartzeko ideia duen edozein apunta daiteke Saiolanen. Programa honetan parte hartzen duenak bi urte barru ireki ahal izango du sortutako enpresa.

Eskaerak jasotzeko epea uztailearen 7an amaituko da.

Orain 15 urte hasi zen Saiolan enpresa eta enpresari berriak sortzen. Orduetik hona, prestakuntza egitasmo honetan parte hartu duten gazteek 38 enpresa sortu dituzte; besteak beste, CD-ROMak egiten dituen DAN-KA, edo beira-zuntzean lan industrialia egiten duen ABE-KI enpresak.

PANDA Softwareko Mikel Urizarbarrenak ere, PANDA antibirusaren sortzaileak, Saiolan programan parte hartu zuen.

Goi-tentsioko kablearen aurka

Musakolatik Aretxabaletako Fagor Ederlaneraino erai-ki nahi den goi-tentsioko kableari buruzko. Bi orriko informatiboa banatu da. Mondragoen, Aretxabaletan eta Eskoriatzan, 10.000 ale banatu dira.

Kable horri buruzko nondik norakoak azaltzen dira. Egileen esanetan, "udalak gai honi buruzko erantzun garbirik eman ez duenez, gure eskaera jendeari ezagutarazi nahi izan dio. Baina, argi utzi nahi dugu hau publiko egin aurretik, legearen bidetik eroan dugula eta hori agortu ondoren atera garela kalera".

Bi orriko informatiboa kablearen kontua hasi zenetik orain artekoa azaltzen da. Besteak beste, Iberdrolak kablea eraikitzeko baimena jaso eta egindako txostenari buruzko infor-

mazioa azaltzen da, baita proiektu horren aurkako egindako ekimenen berri ere. Adierazitakoaren arabera, Arrasateko Udalak Iberdrolaren txostena ontzat ematea okerra litzateke. Proiektu horren aurka dabil-tzan 10 familiek proposatutako bi alternatibak ere azaltzen dira. "Ez dugu ulertzen zer dela eta Udalak ez duen aldaketarik egiten, jakinda Iberdrolarena baino alternatiba hobek badaudela.

Udalak, berriz, apiril-ean adierazi zuenez, Iberdrolari emandako baimena ezeztatu arren, egitasmoa igoal-igoal gauzatuko litzateke. Beraz, ezer gutxi egin dezake. Bi orriko informatiboari buruz berriz, esan beharrekoa dagokionean esango duela gaineratu du Mondragoeko Udalak.

Erguin aurrera

Erguin auzoa modernizatze-ko asmoak badoaz aurrera. Aste honetako Gobernu Batzordeak, LKS enpresari eman dio proiektu-hori idazteko lana. Aipatutako enpresak zazpi hilabeteko epea du horretarako. Ondoren, lanak adjudikatuko dira eta datoren urtean hastea espero da.

Badator gaztetxea

Gobernu Batzordeak aste honetan adjudikatu duenez, Donostiako Urma enpresak idatziko du gaztetxe berria eraikitzeko egitasmoa; 7.300.000 pezeta izango ditu horretarako.

Urmak egitasmoa burutu-ko du, eta ondoren erabakiko da nork egingo dituen eraikuntza lanak, hauek ere datoren urtean hasiko dira. Gaztetxea egiteko 200 milioi pezeta ipiniko ditu Udalak. Uarkape pilotalekuaren atzean egingo da.

Enrike Letonari ebakuntza

Astehenean ebakuntza egin zioten Enrike Letona preso mondragoetarrari. Eskuineko orkatila sendatu zioten eta, dirudienez, ebakuntza ondo irten zen.

Hamahiru bat urte egin zituen Enrikek arazoak zituela, ezkerreko hankan lehenengo eta eskuinekoan gero. Orain zortzi hilabete, ezkerreko orkatilean egin zioten ebakuntza. Orduan egun eta erdi egin zuen ospitalean.

Epaileak FGHZko begiraleen alde egin du

Donostiako Gizarte Auzitegiak erabaki duenez, Familia eta Gizarte Heziketarako Zentroko begiraleak Kutxako langileak dira. Horrek esan nahi du, Gizarte Segurantzari zor zaion dirua Kutxak ordaindu beharko duela. Kutxak, berriz, errekurritu egingo du sententzia.

1998. urtean hasi ziren Familia eta Gizarte Heziketarako Zentroetako begiraleen eta Kutxa Fundazioaren arteko liskarrak.

Gipuzkoan mota horretako sei zentro daude, horietako bat Mondragoen. Guztiak Kutxa Fundazioarenak. Kontua da, Gizarte Segurantzak ez duela dirurik jaso Familia eta Gizarte Heziketarako Zentroetan lanean ibili diren 134 begiraleengandik. Kutxaren



Kutxa fundazioak errekurritu egingo du epailearen erabakia.

esanetan, begiraleei dagokie ordaintzea, langile autonomoak direlako. Begiraleek, ordea, soldatapeko langileak direla diote eta, ondorioz, Kutxa Fundazioak ordaindu behar duela.

Epaitegitara eraman zuten auzia abenduan, eta dagoeneko jaso dute epaia. Epaileak erabaki duenez, Familia eta Gizarte Heziketarako Zentroko begiraleak Kutxa Fundazioaren soldatapeko langileak

dira. Beraz, Kutxa Fundazioak ordaindu beharko du Gizarte Segurantzari zor zaion diru kopurua.

ERREKURTSOA

Kutxa Fundazioak, esan bezala, errekurritu egingo du epailearen erabakia. Juan Luis Urkola, Kutxa Fundazioako komunikabide arduradunaren esanetan, epaia ez da zentzuzkoa eta aurre egingo diote. Hala izanez gero, Euskal Herriko Auzitegi Gorenak erabaki beharko du hurrengo.

Bigarren aldia da epaileak FGHZko begiraleen alde egingo duela. Begiraleak lanik barik geratu ziren 99. urtean, Kutxarekin izandako liskar hauengatik. Epaileak langileen kaleratzea bidegabekoa izan zela erabaki zuen orduan.

Solidarioak, gose greban



Arrasateko bi solidariok gose greba mugagabeari ekin zioten eguaztenean Arrasateko Udaletxeko areto nagusian, euskal presoekiko elkartasunean.

Prensaurrean espainiar gobernu salatu zuten, presoekin inguruan indarrean dagoen legeria betetzen ez duelako.

Hiru aldarrikapen nagusi

gogorarazi zituzten: euskal presoak Euskal Herriratzea, zigorraren hiru laurdenak eginak dituzten presoek behin behineko askatasuna ematea eta gaixotasun sendaezina dituzten presoak etxeratzea.

Lau arrasatearren kasuak aipatu zituzten: Pedro Guridi, Jesus Mari Zabarte, Jon Agirre eta Goio Etxaberenak, hain zuzen ere.

Tamainako zaborrak

Debagoieneko Mankomunitateak sarriago jasoko ditu aste honetatik aurrera kaleetan uzten diren tamaina handiko zaborrak. Hilean behin barik, aurrerantzean hilean birritan jasoko dira.

Herri bakoitzean egun zehatzak izango dira. Mondragoen, hileko lehen eta hirugarren ostegunetan jasoko dira. Hori bai, egun horietako bat jaiegun izanez gero, hurrengo astera pasatuko litzateke.

Bakoitzak bere etxetik hurbilen duen tokian utzi behar ditu zaborrak, goizeko 8ak baino lehen, jaso behar diren egunean bertan.

Mondragoetarrek, gainera, aurretik Mankomunitate-ra deitu beharra izango dute, abisua emateko.

UEMArekin bat

Arrasateko Udalak, Gobernu Batzordearen erabakiz, atxikimendua agertu dio UEMAko (Udal Euskaldunen Mankomunitatea) Batzar Nagusiak martxoan hartutako erabakiari. Honakoa onartu zuen: "euskararen erabilera denon ardura izanik, Euskal Herriko erakunde eta entitate guztiak animatzen ditugu euskararen aldeko konpromisoa adierazten".

Akordio hau Euskal Herriko udal eta aldundi guztiak, euskararen aldeko herri-ekimeneko erakundeei, nahiz alderdi politikoei igortzea eta euren atxikimendua eskatzea".

Abaltzizketako udalak UEMA n sartzeko hartutako erabakiarekin hasi zen ikamika. Espainiako Auzitegi Gorenak ez zion utzi UEMAko kide izaten.



JAI GIROA AITA MENNIN

Aita Menni Ospitalean jaialdiz jaialdi dabilta. Ramona Urbieta andreak 100 urte bete ditu, eta urtebetetze ospakizun aparta izan zuten. Gainera, Senidearteko XV. Topaketak ere ospatu berri dira. Elkartu ziren 600 lagunek meza, mokadua eta jaialdi zoragarria izan zuten.



PRIMERAN BASERRIAN




Umezaintzako ikasleak Lurraska ingurumen baserrian izan dira: gazta eta erroskilak egiten ikasi, animaliak zaindu, baratzean lan egin... Hori dena egiteaz gain, trenean ibili eta Bermeoko museoa ikusteko astia izan zuten. Zer pena etxera bueltatu beharra, ezta?

“PAL”

burdindegia,
brikolage
eta tresneria

Uribarri etorbidea, 3
Tel.: 943 79 31 99 ARRASATE



TXIRRITA

Taberna

Garagardo ona
Giro hobea

Gesalibar auzoa
Tel.: 943 79 10 35


Altzariak
Diseinua
Apainketa
M ARENAZA

Bizkai, 1 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 08 07



IKUSI, MAKUSI...

Zer ikusi? Sanjoanetako bi karrozak! SUDCen enkarguz, hortxe ari da aurtengoak prestatzen Danel Goikolea. Zer diren jakin nahi? Pistak emango dizkizuegu: helduenak Arrasaterekin zerikusi handia du, eta txikienak, itsasoarekin.



OLARTEKO AZTARNATEGIA



Olarte kalean XVIII. mendeko aztarnak aurkitu dituzte. Garai batean Juan Carlos Guerraren Etxea oraingo taxi geltokiaren inguruan zegoen, eta eraikinaren 30 metro luze eta bi metro garai den zati bat aurkitu dute.

INDIGENEN ENBAXADOREA



Kolonbiatik irten eta Hego Amerika, Afrika eta Espainia bizikletan zeharkatu ondoren, Euskal Herrian dugu Carlos Uraba. Bere helburua Amerikako indigenen eskubideak aldarrikatzea da. Zorte on, Carlos!

Urtebete egin dugu Ignacio Zuloagako erakustokian



OMU
ZERAMIKAK

**Zeramika,
arte
unibertsala**



Biltegia eta bulegoak: Meatzerreka, 6 • Tel./Faxa: 943 79 14 28 • ARRASATE
Erakusketa: Ignacio Zuloaga, 4 • Tel.: 943 79 07 20 • ARRASATE

ANDONI IÑARRA (LUTHIERRA)

“Musika tresna gutxi e

Erdiko Kaleko atari batean gora eginez, Andoni Iñarraren lantokia dago. Ogibide bitxia du, ezohikoa: luthierra da. Arabieratik datorren hitza da luthier, eta laute da bere esanahia. Luthier batek harizko musika tresnak egin eta konpontzen ditu.

Eskola Profesionalean ikasten zebilela eta, era berean, pianoko zazpigarren mailan zebilela, lutheriari buruzko informazioa entzun eta horrelaxe hasi zen mundu horretan. 22 urterekin Italiako Cremona herrixkara joan (Stradivariusen jaioterrira), bertan lau urtez ikasten egon, eta orain hementxe dago lanean, Mondragoen.

— Lanbide ezohikoa...

— Bai, hemen bai. Bestela, Europan oro har, eta Italian bereziki, oso ezaguna da, tradizio handia dago. Pentsa, Italian lutheriaren ogibidea LH modu bat da.

— Hari-musika tresnagilelea zara...

— Laukote klasikoak erabiltzen dituen tresnak egiten ditut: biolina, biolontxelo, biola eta kontrabaxua; guztiak konpondu eta berriztu ere egiten ditut. Egia esan, konpondu, hari-instrumentu ia gehienak konpontzen ditut: gitarrak, lauteak...

— Hari-instrumentuak bakarrik?

— Musika tresna gutxi egiten dira osorik eskuz. Gehienetan makinak erabiltzen dira musika tresnei forma emateko; azken ikutuak dira eskuz egiten direnak. Nik erabiltzen dudana makina elektriko bakarra zera da.

— Nolatan Mondragoen?

— Italiara joan nintzenean Bilboko eskola zabaldu zen. Eskola horretan ikasitako batzuekin harremanetan jarri eta Bilbon lantoki bat

zabaldu genuen. 5-7 urte eman nituen han eta gero honantza etorri nintzen, orain bi urte.

— Baduzu lan nahikoa?

— Eskuz egindako musika tresnak oso garestiak dira eta, ondorioz, gutxi egiten dira, hortik ezin da bizi.

Hemen, Europan ez bezala, musika tresna zaharrak berriak baino hobeak direla uste du jendeak, kultura hori dugu. Behin maila bat hartuta, jendeak, jeneralean, musika tresna zahar bat erosi eta huraxe berritzen du. Beraz, hortik lortzen dut nik lanik

gehien, birziklatze antzekoa egiten dut. Jeneralean, bezero partikularrak izaten ditut, askotan akademiak.

— Zein material erabiltzen duzu?

— Hiru egur mota: goiko tapa izeiaz egindakoa da; beste gutzia astigarra da eta beltzez dagoena, berriz, ebanoa. Hariak egiteko zaldiaren tripak eta altzairua erabiltzen dira, jeneralean. Altzairua zilarra edo urrea izan daiteke, musika tres-

“Eskuz egindako musika tresnak oso garestiak dira eta, ondorioz, gutxi egiten dira, hortik ezin da bizi”



“...itien dira osorik eskuz”

naren arabera.

Baina, gaur egun, tripak izan barik nylona ere erabili ohi da, eta kontrabaxuko sokak batzuetan wolframioz inguratuta daude.

— Materiala, hemengoak?

— Egon badago, baina hemengoak ez du behar adina kalitate. Astigarra Alemaniatik ekartzen dut; lutherian erabiltzeko egurra mozten dakiten espezialistak daude han. Berez, astigarra Balkanetakoa da, jeneralean, Kanadako batzuetan. Izeia, berriz, italiakoa da.

— Zuen musika tresnen artean ere ba omen daude desberdintasunak...

— Estilo desberdinak daude. Italiako forma da gustukoena, doinua leun-leuna du, borobilena edo. Alemaniar estiloa, berriz, askoz ere gogorragoa da eta frantsesa erdibidean geratzen da. Koloreak ere desberdinak izaten dira.

— Dohain berezirik behar da luthierra izateko?

— Musika tresna bati doinu egokia ateratzeko, nahikoa da ezarrita dauden neurriak errespetatzea eta lehen aipatu moduan

material egokiak erabiltzea (egurrez gain, barniz naturalak...). Ezin da musika tresna bukatu arte itxaron, afinatua dagoen edo ez jakiteko. Egin ahala ikusten goaz zer-nolako pisua duen, egurren betak modu egokian moztu diren... poliki-poliki. Horrela lortzen dugu doinu egokia.

Hortik aurrera, egurra lantzea da; beste edozein eskulan modukoa...


— Zer dela eta ez da gehiago hedatzen hemen?

— Tradizio faltarengatik. Hemengo folkloreak ez du musika tresna hori erabili eta ez

dugu ohiturarik. Madrilen, Barzelonan eta Valentzian, esaterako, badaude eskulenen lantegiak, baina oso gutxi. Jende askok lutheria zer den ere ez daki eta mundu honetan sartzea, kontaktu barik, zaila izaten da, oso zaila. Cremonan, aldiz, hemen tabernak adina lantegi daude.

— Stradivariusik izan duzue esku artean?

— Bai, nik esku artean nuen bitartean, hiru pertsona nituen bueltan hura zaintzen... baina bai, eduki dut. Cremonan museo txiki bat dago eta hantxe izan nuen aukera. ■



AMAGARA

“Benetako edertasuna, barneko eta kanpokoaren arteko harmonian dago”

Amagara estetika zentroa, estetikaren espezializatua, profesionalen berme osoa.

Zuri aholkatzeko, zein hobeto zure estetizista baino.

- Aurpegi eta gorputz tratamenduak
- Estetika zerbitzuak
- Estetika mediku aholkularia

Deitu konpromisorik gabe
943 79 09 09

Erdiko kale, 54 etxabea • Tel.: 943 79 09 09 • ARRASATE

Euskara eta hezkuntza,



Orain dela 25 urte hasi zen Irakasle Eskolaren ibilbidea.

Zein antzekotasun dute irakasle batek, aktore batek, informatikan aditu batek, musikari batek, idazle batek, itzultzaile batek, enpresa bateko pertsonal kudeatzaileak edo euskara elkarte bateko lehen-

dakariak? Lanbide desberdinak dirudite. Desberdinegiak, akaso, zer edo zer komunean izateko.

Ba horietako bat baino gehiago Eskoriatzako Irakasle Eskolatik irten da.

“Maisu asko zegoen, baina euskara aipatu ere ez zen egiten”

Gehiago esan genezake: bat baino gehiago Eskolan jabetu da bere zaletasunetaz, edo Eskolan hasi zen etorkizuneari bere ogibidea izango zena-ren ildotik joaten. Dabid Errasti, Yolanda Arrieta, Asier Serrano, Iban Arantzabal, Andoni Mujika, Diego Martiartu, Karnele Zuazubiskar... hango ikasle izan ziren sasoi batean.

Jatorrian Irakasle Eskola

izan bazen ere, definizio hori txiki doakio orain Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea denari.

Segituan igertzen da eskola horrek baduela zerbait berezia. Ikasle ohien izenek eta lanbideek ematen dute han bizibizi dagoen aberastasunaren ideia arin bat. Ikasteko grina, norbere bidea aurkitzeko gogoia eta horretarako ikasle eta irakasleen arteko elkarlana eta harreman berezia...

eskola horren ezaugarrietako batzuk dira. Gaur egun, irakasletza ikasketak ematen dira goizez, eta humanitate-enpresakoak arratsaldean. Anaia txikia iraila aldera jaioko da: Hizkuntzen Psikopedagogia ikasketak. Euri dezente bota du, beraz, Irakasle Eskola bezala jaio zenetik. Begira dezagun iraganera gaur bihurtu denaz hobeto jabetzeko.

HISTORIA

1976. urtea zen. Ikastolak jaioko

IRAILEAN, FAKULTATEA LORRI

Orduantxe jaioko baita Huhezga ikasketa, Hizkuntzen Psikopedagogia, Humanitate eta Enpresako Psikopedagogia, eta Hizkuntzen Psikopedagogia, Fakultateak hizkuntzen mundu zabala arakatu nahi du. Bigarren zikloko karrera ikasketak, hau da, ikasketak egin izana eskatzen du: Irakasle Eskola edo Psikologia ikasketak, eskola Eskolako arduradunak...

Ikasleek kanpoko oparoa

tzen hasi ziren, eta osasun onez, gainera. Baina, euskara ez zegoen hain egoera pozgarrian. Jesus Garmendiak, Fakultateko dekanok, dioskunez, "maisu asko zegoen, bai, baina euskaldunak oso gutxi. Euskara aipatu ere ez zen egiten". Eta horrek egoera aldrebesak sortzen zituen: alde batetik, euskaraz irakasteko gai ez zen maisu pilo, eta beste pilo euskara jakin bai, baina irakasle titulurik ez zutenak.

Egoera horri buelta eman nahian, Hezibide elkarteak eskolak euskaraz emango zituzten irakasleak sortzeko Irakasle Eskola sortu zuen Eskoriatzan. Salamancako Irakasle Eskolaren gela xume bat bezala jaio zen hura, eta bi urte geroago, Eskola moduan.

Loratze garaia ezin hobea izan zen Eskolarentzat. Felix Goikoetxea zen zuzendari, eta lau irakasle egunerdiz ziharduten, 36 ikaslerekin. Langile falta, gogoarekin eta borondatearekin ordezkatzeko zen. Eta enplegatzaileak, ate joka.

Baina, udaberriaren ondo-

ren, negua. Hori 1988. urte inguruan iritsi zen. Ikastetxeak ase zeuden, eta irakasletzak gainbehera handia izan zuen. Baina, kitagarri moduan, estuasunak jardueren aberastasuna ekarri zion Eskolari: "Bizi irauteko, esparru berriak ireki genituen: informatika, ikus-entzutekoak... Gainera, hezkuntzan hainbat espezialitate sortu ziren: atzerri hizkuntza edo hezkuntza berezia, esaterako", dio Jesus Garmendiak. Horrekin eta Mondragon Unibertsitatearen sorkuntzarekin, 1997an, pasata zen krisialdia. Eta ondo pasata ere: 550 ikasle, bi egoitza, bi ikasketa—laster hiru—eta egitasmo asko ditu Fakultateak.

BEREZIA

Garai onak eta ez hain onak izan dituen arren, badago gauza bat tinko iraun duena: ikasleekiko tratua berezia eta eskolako giro bizia. Sartzen denetik, ikasle bakoitzak bere tutoria du. Horren eginkizuna esparru akademikora eta pertsonalera hedatzen da: ikaslea gidatu, lagundu eta ikasketak



Ikasleek eskolaz kanpoko ekintza ugari izaten dituzte.

ilusio handiz ari dira ikasketa horien jaiotzari begira: "Gure herrian hutsune bat bete nahi du karrera honek. Euskal gizartean sortzen diren egoera linguistikoak bideratuko dituzten profesionalak sortuko ditugu. Gurea gizarte plurilinguistikoa da, eta etorkizunak, globalizazio eta migrazioekin, egoera hori aregotu egingo du", azaltzen du Jesus Garmendiak, Eskolako dekanok.

Jendearen zalantzak bideratu, itzulpenak egin eta zuzendu, eguneroko hizkuntza beharrei erantzuna eman... Horiek guztiak eta gehiago izango dira Psikopedagogian lizentziatutako eginkizunak. Dekanoaren hitzetan, "orain Quebecera edo Kataluniara begira konpontzen ditugu egoera horiek, eta kanpotik ekartzen ditugu profesionalak. Aurrerantz, guk geuk sortuko ditugu adituak."

bideratu. Bestalde, ikasle guztiek egiten dituzte praktikak, eta Eskolan, ikasleen aukerako lekuan izaten saiatzen da zuzendaritza. Hori ere neurri handi batean lortzen da.

Ez da harrizkoa ikasle kopurua hainbeste igo izana. Maisu izan nahi ez duenarentzat, irakasle ikasketak zubi antzekoa dira. Askok filologia, psikopedagogia edo enpresa ikasketak egiten dituzte ondoren.

IKASLE OHIEN GOGOETAK



ELISABET ARENAZA

Gelan sortzen zen euskalki nahaskila gogoratu dut. Ahaztezinak dira ere erabakiak hartzeko egiten ziren ikasle asanbladak: "Bihar greba orokorra, denok dakizue arrazoia. Norbaitek ezezkoa badio jaso dezala eskua... Beno, orduan ahobatezko baiezkoa."

Ondo konpontzen ginen, bai geure artean, bai irakasleekin. Hauek saiatzen ziren euren jardunean eta ikasleok ere bai. Uste dut genuen adinerako "soso" samarrak gine-la; harrezkero, lanbide honetan, arduratsu ibiltzeko uneri ez zait falta izan.

Irakasle Eskolakin ez dut harremanik eten, mintegiak, ikastaroak, praktiketako ikasleak... tartean egon dira eta.



DIEGO MARTIARTU

Orain hurrengoan Eskoriatzan ikaskide izandako batekin egin nuen topo. "Kontxo, Kepa, zer moduz?", "Tira, ahal dan moduz, txurunbela ekarri jua eta hemen, lanienedo..., ordezkapen batzuk egiten ibili nok han-hemen, lelen-go Elziegon eta gero Somorrostro aldien, eta itxoitenak, ia delegaziotik barriro deiketan dustien... Eskoitzan bai ondo, ha, "la-reletxe" zuan, gustora bizi, gu!" Keparen poltsikoko telefono-txirrinak berriketa moztu zigun. Amatasun baja bat zela-eta, 4 hilabeteko ordezkapena eskaini zioten nire lagunari, Markinan. "Hi, Kepa, gorantziak Aintzneri eta txurunbelari!"



JOSE ANGEL MIKEO

Eskolan hasi nintzenean aitxajunak, esan zidan: "bajak nahikua eskola klase gura dan guztia ikasteko, baina pertsona izaten erakusten daben eskolaik bajak?". Galderak pentsakor laga ninduen.

Erakusten dugunaz ezkuto curriculum badela ohar-tarazi gintuztenean hartu zuten indarra aitxajunaren berbek: besteei transmititzen dieguna ez da bakarrik edukia bazi-ki eta gure ekintzekin aditzera ematen duguna.

Eskoriatzan hurbiltasunetik abiatuz irakasten zuten irakasleak zeuden eta konturatu barik, irakasteko era berezia barneratzen laguntzen du, pertsona irakasle baino lehen izaten erakusten du.



EDURNE BALZATEGI ETA BEATRIZ GARAI

Talde txikiak alde batera utzi eta 60 inguruko lagun-talde handian murgildu ginen. Oraindik ere gogoan ditugu ondarrutar saltsera haiek, durangaldeko hippyak... talde sendoa zen ordukoa: sormen handikoa, alaia, parrandazalea... Nork ahaztu Mertxe eta bere kantina, hango txokolatzeko palmerak edota Arantza idazkariaren eraginkortasuna? Irakasleekin ere hartu-eman berezia izan zen, gertuagokoa.

Klasetik kanpoko ekintza asko burutu genituen. AEDren hasierako hainbat ekintzatan parte hartu genuen.


Bizitzarako benetako pres-takuntza izan ziren hiru urte haiek.

SORMEN LEKUA

Baina, batez ere, arrakasta horren azalpena eskolan bertan bila genezake. Ikastetik sortzera pasa da eskola. Ikerketa leku aparta da: Jakingarriak aldizkaria argitaratzen du, non hezkuntza gaietaz hausnarketak, artikuluak eta berriak plazaratzen diren; Kukuluman, aldiz, haur eta gazte literatura behatzen da, arlo horretan interes handia duten irakasleak baitaude Eskolan. Sortzeko irrikia dutenek baliabideak aurki ditzakete han; bertako ordenadoreek ikusi zituzten gaur egun Ihardun Multimedia enpresa denaren lehen urratsak; poesia, literatura,

ekologia, giza arazoak... hitzaldietan edo ikastaroetan

gorpuzten eta gerturatzen dira ikasleengaino.



laz inauguratu zuten eraikin berria.

Orain hiru urte Humanitateak-Enpresa lizentziatura sortu zenetik, giza balore oinarri hori enpresa mundura barreiatu nahi du Mondragon Unibertsitateak. Hor dago Praktiker ikerkuntza enpresa sortu berria, zeregin horretan laguntzeko, Fakultatearen magalean. Luzio Ugarteren zuzendaritzapean, gure inguruko hainbat kooperatiba eta enpresekin eta Eusko Jaurlaritzarekin, besteak beste, dihardu lanean Praktikerrek.

25 urte baino ez izateko, ez da marka txarra. ■

Leire Kortabarria

Ekaineko zinea

Sexualitateari buruzko zikloa

Ekainak 8



SEGUNDA PIEL
Zuz.: Gerardo Vera

Ekainak 15

AMIGO / AMADO
Zuz.: Ventura Pons

Ekainak 22

CARTA DE AMOR
Zuz.: Peter Ho-Sun Chan



Amaia Antzokia

21:30ean


Sarrera: 450 pta.

(Gazte txartelarekin: 400 pta.)



ARRASATEKO UDALA

Sexologia Zerbitzua
2000-6-2 • ARRASATE PRESS / X
Kultura Saila



Etterat taberna final erdietarako sailkatu da eta Goienasporterako mutilak badirudi gogoz hartu duela. Ikusi bestela argazkian duen itxura. Profesionala dirudi!

FINALERDIAK JOKOAN

Gezurra badirudi ere, finalerdietara iritsi da Zaldibarko txapelketa. Lau talde ditugu dagoeneko finaleko atarikoan. Etterat Taberna eta AC Surkos taldeek jokatu dute lehenengo, eta bigarrenik Aldibi eta Dribling taldeek. Aldibik esperientzia dauka horrelako kanporaketetan. Aurreko bi urteetan eurek irabazi dute txapelketa. Dena dela, Etterat Tabernaren alde-

ko apustua egin nahiko genuke guk. Talde horretan antolakuntzako bi kidek jokatzen dute. Eurak dira antolakuntzatik txapelketan dirauten bakarrak eta egindako lana eskertzeko modu bat litzateke finalera iristea. Hala ere, ez dute ez aurkari makala: AC Surkos taldekoek finalaurrenetan 9 gol sartu zizkieten Iratikoei.

Kontuak kontu, larunbatean giro polita egongo da Zal-

dibarren eta eguraldiak laguntzen baldin badu, zer esanik ez! Zorte on lau taldeei, baina bakarrik bi sailkatzen direla gogoratu, "lastima, pena".

IKA-MIKAK BERRIRO

Eta berriz ere ika-mikak Zaldibarren. Txapelketa osoan zehar ezer kontatu badizuegu horixe izan da: taldekideek ez dituztela epaileen erabakiak errespetatzen eta astero talderen batek irainka bukatu due-

la partida. Eta, jakina, joan den astean ere antzera gertatu zen. Berriz ere epaileen aurka jo eta iraindu egin zituzten You Know taldeko hainbat kidek. Horren aurrean, antolakuntzakoek zigortu egin dute taldea: fiantza kendu diote. Eta datorren urtean, antolakuntzan segitzea erabakitzen badute, talde horretako hainbat jokalarik ezingo du izena eman txapelketan. Horixe adostu dute arduradunek.

ETEO

ERDI MAILAKO IKASKETEN HEZIKETARAKO ESKAINTZA (2000-2001 IKASTURTEA)

- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN BATXILERGOA (G.G.Z.B.)
- HEZIKETA ZIKLOAK:
 - Administrazio kudeaketa (Erdiko Maila)
 - Idazkaritza (Goi Maila)
 - Informatika Aplikazioen Garapena (Goi Maila)
 - Administrazioa eta Finantzak (Goi Maila)
 - Nazioarteko Merkataritza (Goi Maila)

AURREMATRIKULARAKO EPEA:
Ekainaren 12ra arte

Larraña, 16 • OÑATI
Tel.: 943 71 80 09 • Faxa: 943 71 81 62

email: informacion@etee.muni.es
www.etee.muni.es



Hurrengo partidak / Finalerdiak

Iarunbata, 3

Zaldibar

15:30 Etxerat Taberna - AC Surkos

17:00 Aldibi - Dribing

Emaitzak

A taldea

Etxerat Tab.3 - Branka Taberna 3

D taldea

Irati STS 1 - AC Surkos 9

Aldibi 5 - Timoftol 3

E taldea

You Know 2 - Dribling 4

ARRASATE  **KIROLAK**
Kontzezino Kalea, 8 - Tel. 943 794 612 - ARRASATE-MONDRAGON

URREZKO GOLA

Dagoeneko finalerdietara pasatu diren taldeetako jokalariek jakingo dute, baina badaezpada, urrezko gola egongo dela gogoratu. Hau da, berdinketaren kasuan bost minutuko luzapena jokatuko da eta orduan gola sartzen duen lehenengo taldeak irabaziko du kanporaketa.

FINALA PRESTATZEN

Zaldibarko finala ekainaren 10ean jokatuko da. Eta ondorengo ospakizuna egiteko dagoeneko hasi dira prestaketak egiten antolakuntzakoak. Izan ere, sari banaketa finala

jokatu ondoren egingo da eta ez da bakarrik txapeldunaren saria banatuko. Sei jokalarik "jokalaria onenen" sariak jasoko dituzte eta bigarren eta hirugarren sailkatuek ere izango dute euren garaikurra.

Afaria ere egongo da, baina finalera helzen diren bi taldeentzako bakarrik izango da.

FINALAK GOITBN

Goienasport saioak finalerdietako eta finalerdiaren partiden laburpenak eskainiko ditu.

Datorren astelehenean esaterako, finalerdietako bi partidak ikusiko ditugu.

ERRENTA AITORPENENA 99


Informatu, aurten legea berria da!

Dena profesionalen esku.

Denboraz eta paper barik.

 **Zenbaki**

Basabe Industrialdea, F-0 Pab. • ARETXABALETA • Tel.: 943 71 21 12 • Faxa: 943 71 22 68



Aldez aurretik deitu !

TELEMATIKA:

aitorpen arrunta kobratzeko modurik azkarrena.



Boolderra: Uarkapen eskalatzeko aukera

Joan den ostegunean ireki zuten Uarkape pilotalekuan eskalatzailak entrenatzeko boolderra, eta ez rokodromoa. Rokodromoek goitik behera aritzeko hormak izaten dituzte eta Uarkapekoak aldenik alde ibiltzeko dira.

Sabaia nahiko baxua du eta zeharka dituen 18 metroetan jarri dituzte presak, hau da, eusteko koskak. Tokiak 18x6 metro ditu.

Raul Jimenezek, Josean Mulasek eta Mikel Castillok hilabete eman dute boolderra prestatzen AUKEAko ardura-dunek eskatuta. Musakolako rokodromoa konpontzeko aukera ere bazegoen, baina azkenean konpontzea baino, berria egitea izan zen irtenbide praktikoa.

Presak bi panel, ganga bat eta plaka batean banaturik



daude. Paneli dagokienez, batek 45 graduko malda du eta besteak 25koa.

Boolderraz gain, eskuetan indarra hartzeko beste ariketa tresna bat ere jarri dute. Eta gimnasio txiki bat ere jarriko dute. Sarrerari dagokionez, AUKEAren bitartez gestiona-tuko da eta 300 pezeta kostako da; baina, bazkide egiteko

aukera ere egongo da: bonuak 3.500 pezeta balioko du; ordu-tegiari dagokionez, astean zehar 10:00etatik 22:00etara eta larunbat eta jai egunetan 09:00etatik 14:00etara egongo da zabalik.

Baina, ezinbesteko bete-behar bat dauka boolderrak: erabiltzaileek mendian federatuta egon behar dute.

3x3 saskibaloitxapelketa

San Joanetan 3 x 3 saskibaloitxapelketa jokatu da. Arrasate Saskibaloitaldeak antolatatu du, Arrasate Kirol Proiektua eta babesle batzuekin batera. Ekainaren 10ean eta 11n jokatu da, Jokin Zaitegi plazan. Senior, junior, kadete, infantil, alebin eta benjaminetan, nesketan zein mutiletan bai eta nahastutako taldeetan arituko dira.

Finalak Gasteizen jokatu dituzte. Izan ere, Bilbo, Gasteiz, Iruñea, Donostia, Arrasate eta Errioxako taldeek hartuko dute parte txapelketan.

Izen ematea ekainaren 6an amaituko da eta horretarako Musakolako kiroldegira edo Lontxo tabernara jo dezakezue, izena emateko orriak betetzeko.

Senior mailan aritzeko 1.500 pta sartu beharko dira Kutxako kontu korrontean.

Herri arteko pilota txapelketa

Donostian aritu ziren joan den asteburuan herriko pilotariak Herri arteko Gipuzkoako txapelketan. Lehen aldiko azken aurreko partida izan zen eta 1 eta 2 irabazi zuten arrasatearrek. Kadetetan, Alzuri Avilleida donostiaren aurka 4 eta 22 irabazi zuten Uribarren eta Agirrek.

Gaszte mailan, 22 eta 11 galdu zuten Dominguezek eta Jimenezek, Baez II.a eta Aranburu II.aren aurka.

Seniorretan, ordea, Lazkanok eta Zugastik irabazi egin zuten. 17 eta 22 bukatu zen norgehiagoka. Lazkanok tanto bakarria galdu zuen eta Zugastik sekulako partida jokatu zuen. Egingadako jokaldi guztiak ondo atera zitzaizkion.

Gaur 20:00etan itzuliko partidak jokatu dituzte hiru bikoteek Uarkapen. Irabaziz gero, hurrengo aldia Azkoitiren aurka jokatzen hasiko dute. Partida bakarra irabaziz gero, tanteoa ikusi beharko da zein herri sailkatzen den jakiteko. Bi irabazita, ordea, mondragoetarrek pasatuko liriteke zuzenean hurrengo aldira.

LASTERKETA ARETXABALETAN

JMAko Kadeteek berriz, jai izan zuten joan den asteburuan, baina honetan ez da horrela izango.

Aretxabaletan dute lasterketa lehen eta bigarren urteko kadeteek. 16:00etan hasiko da lasterketa.

Garaipenaz amaitu zuen denboraldia Arrasate Almenek

Arrasate Almen eskubaloitaldeak amaitu du dagoeneko denboraldia. Eta modu ezin hobean, gainera. Irabazi egin zuten Loiolaren aurka.

Arrasateko jokalaria urduri hasi ziren partida jokatzen. Hala ere, norgehiagoka guztian zehar aurretik joan ziren Bernardo Balerdirenak. Lau eta bost goleko alde izan zuten mondragoetarrek eta partida amaieran une larriak pasa zituzten arren, irabazi egin zuten: 26 eta 24.

Larunbatekoa, ordea, ez zen izan berezia epailearen lanari dagokionez. Berriz ere, ikusleak haserre agertu ziren epailearekin eta tentsioa nabaria izan zen.

BALORAZIO POSITIBOA

Bernardo Balerdi entrenatzaileak kontatu digunez, positiboki baloratu behar da denboraldia: "gaizki hasi ginen, taldea berria zen, jokalaria oso gazteak eta Arrasate eta Almeneko taldeek bat egin genuenez, ez genuen elkar ezagutzen. Hori sumatu egin da, baina denboraldiaren bigarren erditik hona, hobeto jokatutugutu. Sendotu egin gara eta ezagutzen joan garenez, taldeak hoberantz egin du.

Datorren urteari begira, talde berarekin segituko dugu. Gure artean oso giro ona sortu da eta jokalaria gazteak direnez, hurrengo denboraldia ere gogoz hartuko dugu".

Zazpinako Errugbi Txapelketa eta Garagardo Jaia

Iazko arrakasta ikusita, aurtur ere Nazioarteko Zazpinako Errugbi Topaketa antolatu du Arrasateko Errugbi taldeak. Euskal Herrian horrelako txapelketa gutxi antolatzen dira eta iaz arrakasta izan zuen Mondragoekoak; Arabako Gaztedi, Santanderko Independiente, Bizkaiko Universitario 15, Elorrio eta Durango, Gipuzkoako Bera-Bera, Atletico de San Sebastian, Eibar, Ordizia eta Zarautz, Iparraldeko Hasparren eta Euskal Selektzio talde batek hartuko dute parte. Guztiek baieztatu ez duten arren, hamalau bat talde espe- ro dituzte antolatzaileek.

TXAPELKETA

Larunbatean, 15:00etan, Gipuzkoako eta Aragoiko selekzioen arteko partida batekin hasiko da errugbi topaketa eta 40 minutuko bi zatiren ondoren hasiko dute zazpina-



Txapelketa larunbatean, baina jaia ostiralean hasiko da.

ko txapelketa; hau da, zazpi jokalariz osatutako taldeek zazpi minutuko bi zati jokatuko dituzte, urrezko, zilarrrezko eta brontzezko mailatan. Mailak taldeen arabera banatu eta bakoitzak berean jokatuko du.

JAIA

Ostiralean, arratsaldeko 7etatik aurrera, Garagardo Jaia

egingo da herriko plazan. Bertan, zer jan eta zer edan ez da faltako: saltxitxak, saiheskia, oilaskoak eta bestelakoak egongo dira, jakina, garagardo pitxarrez lagunduta. Eta eguraldiarekin lasai, 450 metroko karpa bat jarri behar dute eta; horrela, gora begira egon beharrik ez duzue izango joaterik nahi baduzue!

Eskoriatza-Arrasate herri-krosa igandean

Zortzigarren aldiz egingo da domekan Eskoriatza-Arrasate herri-krosa. Arrasate Atletiko taldeak eta Arrasate Kirolakek antolatu dute herri-krosa eta eguerdiko 12etan hasiko da Eskoriatzako plazan. Zortzi kilometro eta erdi ditu ibilbideak eta parte hartzeko izen ematea, hasi baino ordu erdi lehenagora arte egongo da zabalik. Aurreko egunean izena emateko, Arrasate Kirolak dendatik pasatu behar da. Izen ematea 700 pezeta kostatzen da.

SARIAK

Maila absolutuan, irabazleak 30.000 pta irabazi-



Emakumezkoetan, Maia Mazorriagak irabazi zuen iaz.

ko du eta emakumezkoetan ere 30.000 pta.koa izango da lehenengo saria. Hortik behera, absolutuan lehenengo hamabostek eskuratuko dute diru saria eta

emakumezkoetan lehenengo bostek. Beterano eta junior mailetan ere sariak banatuko dira.

Autobusa egongo da Arrasatetik Eskoriatzara.



Erantzuna badakizu, ekarri osteguna baino lehen Arrasate Pressera.

Hilaren bukaeran irabazleen artean zozketa egingo da zuzenean Mondrasport saioan, sari mundiala etxeratzeko.

Aurreko asteko erantzuna: Arrasate Rugby Taldeak antolatuko du garagardo festa.
Galdere: Zein txapelketa antolatuko dute AKP-ak eta Arrasate Saskibalo taldeak ekainaren 10ean?

Erantzuna:
Izen-abizenak:
Helbidea: Tel.:

Bukatu da ikasturtea



Kirolari nagusienek bezala, gazteenek ere denboraldiari amaiera eman diote dagoeneko.

Horregatik, larunbatean azken jaia ospatu zuten Arrasate Kirol Proiektuko neska-mutikoeak.

AKPko hurrek bizikleta irteera egin zuten Aramaiora begirale eta gurasoekin batera, eta bueltan Uarkapera joan ziren. Hantxe prestatu zuten azken jaia ospatzeko beharrezko guztia, baita hurrei emateko garaikur eta sariak ere. Eta horretarako kirolari ezagunak gonbidatu zituzten: goi mailako pilotariak, hain zuzen ere. Hauetako bat, gainera, bezperan ere Uarkapen egondakoa: Aitor Elkoro elgetarra. Berarekin batera, Jokin Etxaniz eta Imanol Agirre egon ziren.

Sari banaketan, denboraldi onena egin duten taldeek garaikur bana eskuratu zuten. Taldez talde, La Merced lehenengo, SFX A bigarren eta SFX B hirugarren gelditu dira.



Aramaiora bizikleta marixa arrakastatsua izan zen.



Elkoro, Agirre eta Etxaniz pilotariak banatu zituzten sariak.

Baina, ez kirol emaitz onenak egiteagatik, izan ere, Arrasate Kirol Proiektuan kiroltasuna eta elkarlana ere puntuatzen da. Kontuak kontu, multikirola, futbola, saskibaloia eta beste hainbat kirol egin dituzten taldeek ere jaso zuten saririk.

Hurrek han egon ziren pilotariak beste goraipatu zituzten begiraleak ere. Arrasate Kirol Proiektuan gogor lan egin dute kirola bere osotasunean hurrei azaltzeko eta hauek, kirol heziketa zabala izanik, adin jakin batera iristean gustukoaren duten kirola hartzen dute.

Orain oporrak izango dituzte hurrek, baina begiraleek lanean segituko dute datorren urteko ikasturtea prestatzeko eta ahalik eta aukera zabalagoa gertatzeko, hurrengo urtean izena emango duten haur guztiei eskaintzeko.

Aurten 800 bat neska-mutiko ibili dira kirola euskaraz egiten Arrasate Kirol Proiektuan.

Urte bikaina Eskola Kirolean

— Ikasturtea amaitu dela eta, zer balorazio egingo zenukete?

Sekula baino ume gehiagok hartu du parte aurten. Asteko saioetan asistentzia ona eduki dute eta asteburuetako partaidetza ere oso ona izan da psikomotrizitate, aurrekirol eta multikirolean.

Horrez gain, aipatzekoa da infantiletan, saskibaloian batez ere, oso maila ona eman dutela gure taldeek, bailaran punta-puntan egon direlako:

Gipuzkoako Txapelketarako txartela lortu eta Udaberri Txapelketan nagusitu dira. Futbolearen ere maila txukuna eman dute eta atletismoko taldeak lortutako emaitzak ezin ditugu ahaztu.

— Datorren urtean Proiektuak hamar urte beteko ditu. Zein asmo duzue?

Aurena, aurtengoa amaitzea izango da. Behin udalekuetatik bueltatuta, amaitutzat emango dugu ikasturtea.

Datorren urteari begira, zenbait aldaketa sartzeko asmoa badugu. Orainxe gai horretan buru-belarri sarturik gaude, Proiektuan inplikazio zuzena duten partaide guztien eskaerak asetuko dituen eskaintza zabal eta kalitatezko bat eskaintzeko asmoz.

— Joan den asteburuan azken jaia ospatu zenuten, nola irten zen?


Iragarritakoa zapuztuz, eguraldi bikainarekin esnatu

zen larunbat goiza eta Aramaiora egindako bizikleta txangoa jendetsua eta alai izan zen.

Sari banaketa espero bezala joan zen, eta opariaren zozketek emozio eta urduritasun puntua jarri zuten bildutako umeengan.

Bide batez, bertan parte hartu zuten gonbidatu guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu, baita urte osoan zehar Proiektuan ibili den jendetzari ere.

Piter Encinasen marrazkiak Jai Zale tabernan



Marrazki guztiak puntuz egin ditu Piterrek.

Ekainaren 4a arte, Olarte kaleko Jai Zale tabernako paretetan puntuz egindako 29 marrazkiren erakusketa dugu ikusgai, "Una de Punteo" izenburuarekin. Piter Encinas marrazkilari arrasatearra da egilea.

Piterrek esan digunez, "Arrasaten jende asko mugitzen da artearen inguruan, eta nire helburua zera da, erakusketa bat edozein marrazkilari edo margolarik egin dezakeela erakustea". Marraz-

kilari honen ustez, Mondragoeko artistek oleoa marrazkia baino nahiago dute, eta horra hor erakusketa honen orijinaltasun traza bat.

AURRERAPAUSSA

Artistak berak aukeratu ditu taberna bateko paretak, Harresi Aretoa edo Monterrongo erakuslekua baino. Askok pentsatu ondoren zabaldu du erakusketa hau, izan ere, berak dioskun moduan,

"zaila da pauso hori ematea, baina azken batean, niretzat aurrerapauso bat da".

Piter Encinas autodidakta da. Txikitandik dihardu marrazten, eta urteak aurrera joan ahala, teknika hobetzen joan da. Hasieran, hatzez egiten zituen koadroak, baina gero puntuaren teknika aukeratu zuen. Azken egunak dira erakusketa hau ikusteko; anima zaitezte, bitxia eta polita da-eta.

Mururen urrezko ezteiak



Muru mendiko gurutzak 50 urte bete ditu. Hainbat ekintza prestatu ditu Zaraia mendizale taldeak. Zapatuan, gurutzak argizatuko dute, eta domekan 08:30ean Murura igoko dira.

Datorren ostegunean, Mururen historia eta istorioak biltzen dituen liburua aurkeztuko du Aitor Antxia Leturiak: Kristo aurreko 1000. urtean bazegoen herritxo bat mendi tontorrean, eta orduan izandakoak jasotzen ditu Antxiak. Artean, Mondragoeko dragoiaren istorioa ere jaso da.

Glotodidaktika eta euskara

Debagoieneko AEK-k irakasleendako 100 orduko glotodidaktika ikastaroa antolatuko du. Uztailean izango da, goizero 5 orduz. Bertan, helduen euskalduntze-alfabetatzean jarduteko metodologia emango da batik bat. Interesatuok deitu 943 77 03 69ra edo joan Mondragoeko AEKra. Izena emateko epea ekainaren 22ra arte izango da.

Bestalde, HABEren familia euskaldunetan egonaldi programan izena emateko epea ekainaren 5ean amaituko da. Argibide gehiagorako, deitu 943 02 26 21 telefonora.

Numen, Bilbo Hiria lehiaketan

Arrasateko Numen taldeak Bilbo Hiria rock lehiaketan parte hartu du, eta irabazi ez arren, ezagutzera ematea eta lagun talde polita biltzea lortu zuen, artean espreski Bilbora joandako arrasatear talde bat.

Mondragoeko seikote honek black death melodikoa jorratzen du. Joan den otsailean plazaratu zuten euren lehen maketa, "Hai-



ze sorginduen intziriak", eta arrakasta handiarekin ere, 200 aletik gora saldu baitituzte. Grabaketa zela eta, hainbat gastu izan zituzten, eta zulo horiek guztiak estaltzeko moduan geratu dira Numenekoak.

Orain, lasaitasun handiagoz, abesti berriak sortzen dabilta. Uztailean ekingo diote berriro publiko aurrean jotzeari.

asteko filma



Las Vírgenes Suicidas

(The Virgin Suicides). Drama. EEBB, 1999. **Zuzendaria:** Sofia Coppola. **Akto-reak:** James Woods, Kathleen Turner, Kirsten Dunst, Danny De Vito.

HARIA

Fanatismoan eta errepresioan hezi dituzte Lisbon senar-emazteek euren bost alabak, zein baino zein politagoak. Herriko mutilak zoratuta dauzkate, baina ederrak bezain eskurazinak dira. Egun batean, alaba gazteenak bere buruaz beste egingo du, eta horrek euren inguruko liluramena eta misterioa areagotuko ditu.

KRIKA

Francis Ford Coppolaren alabak bere benetako bokazioa aurkitu duela ematen du, ondo baino hobeto burutu ditu-eta zuzendari lanak. Lisbon ahizpak ezagutu zituzten mutilen oroitzapenen bidez marrazten du gure begi aurrean bizitzaren misterioa garatzen duen istorio eder hau. Hautzarotik heldutasunera doan bide latza eta horrek eragiten dituen aldaketak gaitzat hartuz, begiak gozatzeko eta gogoeta pare bat egiteko film boro-bila egin du Coppolak.

irakurle eta entzule

Iturria: Eya

diskoak

JON SECADA

Better part of me (550 Music)



Orain urte batzuk irrati kate guztietan entzun ahal izan genuen Jon Secada kubatarraren ahotsa, pop estiloko bala-

da ezten doinura, eta mundu osoan arrakasta handia izan zuen "Just another day" izeneko abestiarekin. Hainbat urte mutu ibili ondoren, hamabost urteko nerabe aurpegidun mutil beltzaran hau beste disko batekin datorkigu. Orduan bezala, ingelesez nahiz gaztelaniaz abesturiko amodiozko kantu politek osatzen dute Secadaren errepertorioa, hori da eta hobeki doakien adjektiboa: politik, uda partean gustura entzuteko moduko baladak, besterik barik. Secadak ahots ona du, estilo melodikorako aproposa, eta ondo jokatzeko abestiok. Latindar ikutua, estatubatuarrek hain gustuko dutena, pop komertzialarekin uztartua.

liburuak

HELENA ETA ARRASTIRIA

Juan Kruz Igerabide
Elkarlanean, 142 orr.
Eleberria



Nerabezaro garaiko istorioa dugu hau, oso ondo kontaturik. Prosa erraza eta dotorea du, zenbait momentutan poesia ikutu bat ere duena. Atalak laburrak ditu. Horre-

gatik ere, oso erraz irakurtzen da. Diseinua ere dotorea eta garbia du. Gomentatzeko moduko liburua.

Atxaga eta Lertxundiren ondorengoan artean, hauxe dugu, Iñaxio Mujika Iraola eta Andoni Egañarekin batera, eskal prosagilerik onenetakoa.

asteburuan zer

kontzertuak

LOS SUAVES



Galiziatik datorkigu lehen taldea, *Los Suaves*. Ez hartu izena aintzat, despistatzeko da-eta. "Víspera de Todos los Santos" da aurt-

ten argitaratu duten diskoa, eta bertako doinuak izango dira nagusi Jamen, ostiralean 22:00etan. Beti bezala, galiziar taldeak -orain boskote dira- euforiaren gailurretara eta etsipenaren leize ilunetara eramango gaitu bere letrekin: gizaki izatearen zailtasunak, Jose Agustin Goyti-

soloren poemaren moldapenak, afrikar etorkinen zoritxarra... eta jakina, rock-and-rollari ereserki berezi batek, besteak beste, osatzen dute euren errepertorio berriena.

ÑACO GOÑI

Zapatuan, 22:30, doinu lasaiagoak entzungo ditugu, *Ñaco Goñi & the Bluescavidas* taldearekin. 14 urterekin hasi zen Ñaco Madrilgo Metroan armonika jole moduan, eta hainbat talderen buru bezala ibili ondoren, *The Bluescavidasekin* datorkigu. "Directo en Moby Dick" diskoa da bere eskaintza berriena.

Zuzeneko diskoa da, eta ez da harritzekoa, kontzertuak baitira *Ñaco Goñi*-ren apusturik indartsuenetarikoa: energiaz eta irudimenez betetako ikuskizuna, bihotzean bluesa daramala erakutsiaz.

kontzertuak

BERGARAKO JAM ETA GO-JAMEKO
KONTZERTUETARAKO SARRERAK.
Ekainak 8: *The Fleshtones*
Ekainak 9: *Baron Rojo+Muro+Tierra de Nadie*

Egun bakoitzerako 2 sarrera
zozketatzen ditugu.

Kontzertuetarako irabazleak gaur gauean Solinuz Blaien.
Txartelak ekartzeko azken eguna: ASTEAZKENA

Izen-deiturak:

Tel.: Eguna:

KAÑERIA 13 (MUSIKA TALDEA)

“Hilabete barru plazaratuko dugu gure lehen maketa”

Garagartzatik datorkigu “Kañeria 13” punk-rock taldea. 1996an sortu zuten lau lagunek. Ordudanik, aldaketak izan dira, baina hasierako ilusioarekin dihardute agertokiak astintzen. Gurekin berba egiteko tarte bat ere izan dute Ikerrek, “Apolo”k, Jonek, Egoitzek eta Zuhaitzek.

—Zer moduzkoa izan da orain arteko esperientzia?

—Une onak eta txarrak izan ditugun arren, pozik gaude, beti aurrera egiten. Azkenengo aldiz Bergarako Jamen jo genuen, *Stiff Little Fingers*ekin, baina, talde gehienek bezala, jaietan, gaztetxetan-eta... jotzen dugu.

—Zeintzuk dira zuen eraginak?

—RIP taldea da guztiok gogoko duguna, txikitandik entzun izan duguna. Gero, bakoitzak bere gustuak ditu, baina punk estiloak uztartzen gaitu.

—Nork sortzen ditu doinuak, eta nork letrak?

—Bakoitzak bere harri-koxkorra ipintzen du. Gehienbat “Apolo”k idazten ditu letrak, baina bateren bati ez bazaio gustatzen, aldatu egiten ditugu. Doinuekin berdin gertatzen da. Gaiei dagokienez, amorrua ematen diguten kontuak ditugu gogoko. Politika apenas ukitzen dugu, guztia esanda dagoelako.

—Maketa bat grabatu zenuten iaz. Zertan da?

—Finantziario arazoak zirela eta, ezin izan genuen kaleratu. Dena dela, azkenean lortu dugu eta laster plazaratuko da, hilabete bat barru. Zazpi abesti ditu, eta guri pilo bat gustatzen zaigu.



—Izango dituzue jarraitzaileak...

—Bai, Mondragoen badugu gure publikotxoa. Hala ere, beti jende berbera ikusi baino, gure erronka jende berria erakartzea da. Adibidez, orain bi aste Jam aretoan jo genuenean, jende guztiz ezezaguna inguratzen zitzaigun. Ezagun zen ondo pasatzen ari zirela, eta horrek sekulako poza sentiarazten dizu.

—Noraino iritsi nahi duzue musikarekin?

—Gure ametsa musikatik bizitzea izango litzateke; ez rock izar handien bezala, baizik eta umiltasunez. Hala ere, errealistak gara eta musika zaletasun bezala lantzen dugu: aurrera egiten badugu, ondo, eta bestela... Guk beti esaten dugu gauza hauek pentsatu gabe egin behar direla, bestela ez dituzu egiten.

—Hurrengo Sanjoanetan ikusi eta entzun ahal izango dugu “Kañeria 13”. Aurrera musikarekin eta zorte on!

aste gazte

■ HEZKUNTZA

Erdi eta Goi Mailako Hezkuntza Zikloetako eskaintza jaso dugu. Aurreizena emateko epea: ekainaren 1etik 12ra.

■ LANA

• Eusko Legebiltzarrak irudi eta soinu teknikaria behar du. Epea: ekainak 12.

• Aretxabaletako Udalak kontu hartzaile teknikaria behar du. Epea: ekainak 12.

• Etxebarriko Udalako, kultura, gazteria eta kirol alorreko teknikaria behar da. Ekainak 13.

■ DIRULAGUNTZAK

• Itzulpengintza alorrean praktikak egiteko dirulaguntzak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutik. Epea: ekainak 6.

• Espainiako Kanpo Ministerioak Erroman duen egoitzan egonaldiak egiteko dirulaguntzak, artista, sortzaile eta ikerlariei zuzenduta. Epea: ekainak 6.

■ LEHIAKETAK

• Bergarako Pol-Pol Mendizale Taldeak mendia eta ingurumena gaitzat hartuz, diapositiba lehiaketa antolatu du. Ekainak 12.

• Emakume Sailak Komiki Ez Sexisten III. Lehiaketa antolatu du. Lanak: 17x24 zentimetroko edo proportzio bereko formatu bertikalean aurkeztu beharko dira, eta 2-4 orri bitarteko luzerakoak. Zuri-beltzean edo koloretan, euskaraz nahiz gaztelaniaz. Epea: uztailak 21.

• Gasteizko Indar Kultura Zentroak “Gaztebideo”, gazteen bideo amateurraren VIII. Erakustaldia, antolatu du. 20 minutik beherakoak eta antzezle gehienek 21 urtetik beherakoak izan beharko dute. Epea: uztailak 31.

Argibideak:

GAZTE ZERBITZUA

☎ 943 77 00 65

“Mondragoen badugu gure publikotxoa, baina gure erronka jende berria erakartzea da”

Goitb

Goiena Telebista

egunez egun

OSTIRALA, 2

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**
- 13:40 **Gatza eta Berakatza.**
Alberto Elorza, Zelai Zabala jatetxeko sukaldaria.
- 13:50 **Ekilan** (errepika).
- 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
- 21:30 **Astebete.** Asteko albisterik nabarmenenak, Eneko Azkaratek aurkeztua.



Eneko Azkarate.

- 22:00 **Gatza eta Berakatza** (errepika).
- 22:15 **Soinuz Blai** (errepika).

LARUNBATA, 3

- 13:30 Asteko saioen errepika: **Jolasplast, Gatza eta Berakatza, Hamaika Magazin, Herriz Herri Zer Berri?, Ekilan, Soinuz Blai, Astebete.**

IGANDEA, 4

- 13:30 Asteko saioen errepika: **Jolasplast, Gatza eta Berakatza, Hamaika Magazin, Herriz Herri Zer Berri?, Ekilan, Soinuz Blai, Astebete.**

ASTELEHENA, 5

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**
- 13:40 **Gatza eta Berakatza.**
Igor Ezpeleta, Elizondo jatetxeko sukaldaria.
- 13:50 **Astebete** (errepika).
- 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
- 21:30 **Goienasport.**
- 22:00 **Gatza eta Berakatza** (errepika).

ASTEARTEA, 6

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**
- 13:40 **Gatza eta Berakatza.**
Eduardo Izarzelai, Dukiena jatetxeko sukaldaria.
- 13:50 **Goienasport** (errepika).
- 19:20 **Jolasplast.**
- 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
- 21:30 **Hamaika Magazin.**
Menopausia, lepoko masajeak eta Egon Schiele margolaria izango dira hizpide.
- 22:00 **Gatza eta Berakatza** (errepika).

ASTEAZKENA, 7

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**
- 13:40 **Gatza eta Berakatza.**
Aitor Aizpurua, Iturritxo jatetxeko sukaldaria.
- 13:50 **Hamaika Magazin** (errepika).
- 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
- 21:30 **Herriz herri, zer berri?**
Aretxabaleta eta Eskoriatza, Maria Agirrek aurkeztuta.




Maria Agirre.

- 21:30 **Gatza eta Berakatza** (errepika).

OSTEGUNA, 8

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**
- 13:40 **Gatza eta Berakatza.**
Jose Ignacio Lasa, Bergarako Batzoki jatetxeko sukaldaria.
- 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
- 21:30 **Musiklasik.** Oñatiko Ganbara boskotea.



Iñaxio Olaizola.

- 22:00 **Gatza eta Berakatza** (errepika).
- 22:15 **Soinuz Blai.** Edu Abasolorekin.

OSTIRALA, 9

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**
- 13:40 **Gatza eta Berakatza.**
Mari Karmen Telleria, Garoa jatetxeko sukaldaria.
- 13:50 **Musiklasik** (errepika).
- 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**



Maider Osa.

- 21:30 **Astebete.** Asteko albisterik nabarmenenak, Eneko Azkaratek aurkeztua.
- 22:00 **Gatza eta Berakatza** (errepika).
- 22:15 **Soinuz Blai** (errepika).

Gatza eta Berakatza

PLATERAK: Arrainak

Astehelena 5
Zapoa, letxuga eta tomatearekin.

Asteartea 6
Legatz buztan betea.

Asteazkena 7
Izokina satsa motzean.

Osteguna 8
Legatza pikillo saltsan.

Ostirala 9
Kokotxak, Gernikako piperrekin.

Menopausia hizketagai


Hamaika Magazin asteartean, 21:30

Bizitzaren heren bat menopausiaren eraginpean igarotzen dute Euskadiko emakume gehienek. Ez da txantxetako gaia, beraz. Horregatik aste honetan ere menopausia izango dute hizpide Hamaika Magazin saioan.

Joan den astean menopausiaren ezauzgarriak gogorazi zizkigun Cristobal doktoreak: obulazio falta, hilekorik ez, beroaldiak eta, hori baino txarrago, osteoporosia. Menopausia duten emakumeek kaltzioa galtzen dute eta, tratamendua jarri ezean, hezurak apurtzeko arrisku handia izaten dute. Horixe omen da menopausiaren ondoriozko latzenetakoa.

Zer egin menopausiaren ondorio txarrei aurre egiteko? Hor dago koska. Eta galdera horri erantzuten saiatuko da Fernando Cristobal ginekologoa.


Beste atal batean lepoko masajeak nola eman erakutsiko da. Egon Schiele margolari austriarraren lanak ikusteko aukera ere izango da. Ikusleak ulertuko du zergatik



Fernando Cristobal

deitzen zioten probokatzailerik Schiele-ren estiloari. Hori guztia eta gehiago, Hamaika Magazinen.

Iluntzean Berriketan



Zintzo demonio ibili dira aste hauetan Almeneko ikasleak Iluntzean Berriketan irratisaioa lantzen. Guztira 20 irratisaio prestatu dituzte, eta

bakoitzak bi atal ditu: erreportajea eta elkarrizketa.

Jende ospetsua inguratu dute programarako: Jorge Fernandez, Klaudio Landa,

Alaitz eta Maider eta La Oreja de Van Gogh, besteak beste. Argazkian, ikasle talde bat Igor Arenaza Logroñes taldeko futbolari atxabaltarrarekin.

arrasate
irratia



ASTELEHENETIK OSTIRALERA

- 09:00 **Albisteak.**
- 09:30 **Goizoro magazina.**
- 11:00 **Formula 10.**
- 12:00 **Zeu be bai.**
- 14:30-18:00 Goizeko saioen errepika.

ASTELEHENA

- 19:30 **Iluntzean Berriketan.** udalekuak Almenen.
- 20:00 **Draxtor.**
- 21:00 **In Session.**

ASTEARTEA

- 19:30 **Iluntzean Berriketan** Erreal.
- 20:00 **Hi bizi hadi!**
- 21:00 **Jakiliplost.**

ASTEAZKENA

- 19:30 **Iluntzean Berriketan.** Goenkaleko Elene.
- 20:00 **Farandula L.P.**
- 21:00 **KK2A.**

OSTEGUNA

- 19:30 **Iluntzean Berriketan.** Internet eta euskal dantzak.
- 20:00 **Ostegunero.**
- 21:00 **Musika.**

OSTIRALA

- 19:30 **Iluntzean Berriketan.** Arrasate Press.
- 20:00 **Planning prest!**
- 21:00 **Kale doinuak.**

LARUNBATA

- 10:00 **Jakinguraz beteta.**
- 11:00 **Zoroklasikoak.**
- 12:00 **Bi zoro ta zu!**

Zuzenean parte hartzeko telefonoa: 943 71 17 31.

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

• Etxebizitza salgai Aramaio kalean. Tel.: 943 79 49 13.

• Etxea salgai, 45 m²koa zentroan. Konponketak egiteko. Tel.: 943 79 81 25. Gaeuz.

• Etxebizitza salgai Arrasaten, Ferrerias kalean. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta ganbara. Berogailuarekin. Deitu 943 77 00 50 telefonora 19:00etatik 21:30era.

2. Erosi

• Etxebizitza erosi nahi dugu Aramaio edo Aretxabaleta inguruan. Tel.: 629 92 24 48 82.

3. Errentan emateko

• Apartamentua alokagai Torrevejian. Bi gela 4/6 pertsonarendako, hondartzatik eta igerilekuetatik kilometro eta erdira. Uztailea eta abuztua, hamabostaldia edo hil osoa. San Joan astea 35.000 pta. Tel.: 943 79 53 18.

• Apartamentua alokagai Culleran (Valentzia). Igerilekua, frontoia eta garajea. Hondartzaren ondoan. Uztailea eta irailan. Tel.: 943 79 93 86. 20:00etatik aurrera.

• Bungalowa alokagai Torrevejian, hondartzatik gertu. Ekaina, abuztua eta iraila. Tel.: 943 79 52 94.

• Karabana alokagai Landetan. 3 litera, ohe banakakoa eta bikoitza, sukaldea aparte. Tel.: 946 23 17 96.

• Apartamentua alokagai Peñiscolan. Uztaileko eta iraileko 2. hamabostaldia. Kiroldegia dauka eta ondo kokatuta dago. Tel.: 943 79 57 31.

• Etxebizitza alokagai San Andresen. Tel.: 943 79 96 39, astegunetan deitu.

• Apartamentua alokagai Laredon. Hondartza ondoan. Tel.: 943 79 52 80.

• 3 logelako etxea alokagai San Andresen. Tel.: 607 84 86 73.

• Zarautzen lokalak alokagai. Etxebizitza lasaia, eguzkitsua eta erdialdean kokatuta dagoena. Tel.: 630 71 35 83.

• Etxebizitza alokagai Donostian (Antiguon) uztaile eta irailerako. Tel.: 943 79 82 05. 22:00etatik aurrera.

• San Andresen 5 ikaslerendako

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



943 71 25 11

ARRASATE PRESS • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

etxebizitza alokagai. Tel.: 943 79 17 25. 21:00etatik aurrera.

• Apartamentu bat daukat alokatzeko ekainean, hilabete osoan edo zatika ere bai. Donostian, Grosen, hondartzatik oso gertu. Tel.: 943 71 96 29, 943 79 82 47.

4. Errentan hartzeko

• Bikote batek etxebizitza behar du errentan hartzeko. Presazkoa. Tel.: 943 79 67 11.

• Lau neska arduratsuk etxebizitza alokatuko genuke Arrasaten. Tel.: 630 78 53 68, astean zehar, Miren, Enara. 943 88 55 68, asteburuetan, Miren.

5. Etxeak osatzeko

• Jendea behar da etxebizitza osatzeko San Andresen. Tel.: 649 68 22 25. Gorka, gaeuz.

• Pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko. Tel.: 943 77 15 67.

• Aretxabaletako etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Tel.: 943 71 99 94. Marta, lanorduetan.

GARAJEAK

9. Errentan emateko

• Erdialdean dagoen garaje itxia alokagai. Tel.: 943 79 01 84. Edurne.

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

• Kalealdean, baina Zarugaldetik gertu, 100m²ko eta bi solairuko lokaia salgai. Tel.: 943 79 18 70.

14. Errentan emateko

• Martxan dagoen denda alokagai Aretxabaletan. Tel.: 626 37 93 26.

LANA

17. Eskaintza

• Klinika auxiliarra, gaixoak eta pertsona helduak zaintzeko prest, etxean edo erietxean. Esperientziaduna. Etxeko lanak egiteko prest. Tel.: 943 79 09 31

• Etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko prest nengoke. Tel.: 943 79 20 55.

• Neska prest umeak zaintzeko. Tel.: 943 79 78 36. Jacqueline.

• Neska prest edozein lanerako. Tel.: 943 79 78 36.

• Neska prest umeak zaintzeko, arratsaldetan. Tel.: 943 71 53 74.

18. Eskaerak

• 25 eta 40 urte bitarteko neska edo mutil dinamikoak behar da. Finantza ezagutza eta heziketa enpresariak duena. Interesatuak bidali curriculum argazkiarekin, Arrasateko, 54 posta-kutxatilara.

• Kafetegi baten barrarako zerbitzaria behar da. Tel.: 619 47 99 24.

• Zerbitzaria behar da San Andreseko taberna batean egunean 3/4 ordu lan egiteko. Tel.: 943 79 57 10.

• Jatetxe batek zerbitzariak eta banatzaileak behar ditu. Tel.: 943 79 45 64.

• Neska edo emakumea behar da umea zaintzeko. Tel.: 943 77 00 19.

• Pertsona bat behar da asteburutan tabernan aritzeko. Tel.: 945 44 50 95.

• Neska edo emakumea behar da haurrak zaintzeko. Tel.: 943 77 04 31.

• Esperientziadun jostuna behar da era guztietako arropak egin eta konponketak egiteko. Tel.: 943 79 89 72.

• Pertsona bat behar da 2 ume zaintzeko irailetik aurrera. Tel.: 600 74 49 56.

• Aramaioke ile apaindegi baterako langile bat behar da. Tel.: 945 44 50 35, 945 44 52 94.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• Esperientziadun filologoak euskarazko eskolak ematen ditu. Euskalduna, mintza praktika, alfabetatze, EGA. Talde txikiekien eta merke. Tel.: 630 71 35 83.

21. Eskaerak

• 1. batxilergoko ikasle batek ekonomia eskolak jasoko lituzke. Tel.: 943 79 98 07.

• DBHko 4. mailako eskolak emateko pertsona bat behar da. 943 79 57 31 (18:00etatik aurrera).

MOTORRA

23. Saldu

• Motorra salgai, Suzuki GS-500 E. Karenatua eta faro bikoitza, 25.000 km. Asegurua 2001.eko maiatzera arte, extrak eta oso egoera onean. Tel.: 943 79 59 71. Mikel.

• R5 autoa salgai. SS - T, egoera onean. Tel.: 943 79 11 99.

• Clio 16v salgai, 80.000 km. 93. urtekoa, estrak. Tel.: 606 76 50 29.

• Fiat Uno autoa salgai, VI - L, merke eta oso egoera onean. Tel.: 943 77 10 59.

• Vespino NLX ia berria salgai. Merkea. Tel.: 619 65 40 69.

• Ford Escort familiarra salgai, 16 balbula. SS-BB. Tel.: 943 79 91 27.

• Yamaha special 250 cc. salgai. 3 urte, 8.000 Km. Berri-berria. Tel.: 943 79 83 17. 21:00etatik aurrera.

• Peugeot 205 diesel autoa salgai, SS-0175 - AC. Egoera onean. Tel.:

943 79 49 18, gauetan.

• Motorra salgai. Scooter, 12.000 km. 100.000 pta. Tel.: 943 79 69 64. Xabi.

• Peugeot 205, SS-V salgai. 60.000 pta. Tel.: 943 79 49 69.

• Opel Kadet GSI autoa salgai, 2-0, 130 zaldi. Tel.: 943 79 16 43.

DENETARIK

26. Saldu

• Karabana alokagai. Beau-Bouceun. Hiru literaduna, ohe txiki eta handi bana (bikoitza). Sukaldean kanpoan frigorifiko handiarekin. Ekaina, uztaila eta abuzturako. Tel.: 946 23 17 96. Itziar edo Mertxe.

• Karro denda alemana salgai, egoera eta prezio onean. Tel.: 943 79 73 04.

• Artzain txakurrak salgai. Tel.: 656 72 85 00.

• Ezkonlogela salgai. 1,35 metroko ohea, 2 mahai txiki eta 2 m. luze den armarua. Marroi ilunak, oso egoera onean. Laminazko somierra doan. 50.000 pta. negoziagarriak. Tel.: 943 79 41 31.

• Philips / Whirlpool No Frost Plus, 1,68 alturako hozkailua salgai. Ia berria. Tel.: 943 79 34 16.

• AEG OKO lavamat 561 garbigailua salgai. Tel.: 943 79 34 16.

• Gazteentzako logela salgai, ohe habia, 1,70ko armarua, apala, mahaia etab. Tel.: 943 79 34 16.

• Piano bat daukat saltzeko, Zimmerman markakoa, berri-berria. Tel.: 943 79 48 10.

• Izozkailu, garbigailu eta sukalde txikia salgai. Oso prezio onean. Tel.: 943 79 18 50, goizez edo 18:00etatik aurrera.

29. Eman

• Bi ohe, 110 zentimetrokoa bakoitza, bi mahai txiki eta bi konketa larrosa (roca). Tel.: 943 77 16 63.

• Txakurkumeak oparitzen dira, alsaziarrak. Tel.: 943 79 31 27.

30. Hartu

• Telebista zaharren bat bota nahi izanez gero, gustura hartuko genuke. Tel.: 616 53 36 76.

31. Galdu

• Maiatzaren 16an, asteartea, arratsaldean musika liburuz beteriko motxila beltz bat galdu nuen Arrasate pasealekuan. Aurkitu baduzu, deitu 943 77 07 41 telefonora.

• Ume baten jaka galdu da Roneo eta Grupo San Juanen artean, joan den ostiralean. Crema kolorekoa da, kotoizkoa. Letra urdinekin eta txapelaekin. Tel.: 943 79 11 59.

33. Bestelakoak

• Ziklomotor zahar baten fitxa teknikoa behar dut. Tel.: 943 77 08 02. Joxean.

32. Aurkitu


• San Andresen giltza mordoxka duen kremaileradun kartera gorria aurkitu dut. Udaltzaingoa dituzu. Tel.: 943 79 14 39.

• Urrezko pultsera aurkitu dut Munaurreko parkean, zurea bada deitu 943 79 90 94 telefonora.

• San Andresen urrezko kate bat aurkitu dut. Tel.: 943 79 04 28.



Goi mailako Lanbide Heziketako B. Institutua
Miguel ALTUNA



Ibargarai 1 • Bergara • Tel.: 943 76 24 91/943 76 38 40 • Bulego orduak: 09:00 - 13:00

GOI MAILAKO PRESTAKUNTZA ZIKLOAK

- Administrazio eta finantzak
- Erregulazio eta kontrol sistema automatikoak
- Mekanizazio bidezko produktzioa
- Proiektu mekanikoen garapena
- Plastikoa eta kautxugintza



ERDI MAILAKO PRESTAKUNTZA ZIKLOAK

- Mekanizazioa
- Ekipo eta instalazio elektroteknikoak
- Administrazio kudeaketa

Aurrematrikula epea ZABALIK:

ekainaren 1etik 12ra

Ohiko matrikula epea:

uztailaren 3tik 7ra

- Norberaren gaitasun eta nahien arabera egokitutako ibilbideak
- Behar diren baliabideekin
- Bide eta ate guztiak zabaltzen dituen ikasketak
- Eskola publikoa: integratzailea eta anitza

Berri gehiago nahi baduzu, deitu gure telefonoetara eta gure eskaintzari buruzko azalpenak emango dizkizugu.



Gauregun modan daude Lourdeserako bidaiak, maiatza ingurutik aurrera, batik bat; baina, lehenago ere horrelaxe izaten zen, nahiz eta orain baino zailtasun handiagoak izan. Bestela, aste honetako argazki bitxi honi begiratzeari besterik ez dago.

Lourdesen aterata dago, gizaldiaren hasiera inguruan.

Mirari baten gertaera kontatzen omen du: aurrean dagoen emakume hori, bere errosarioaz eta aingerutxo aurpegiarekin, itsua izanik, ikusten hasi omen zen. Argazkia, gertakizun horren lekuko izateko atera zen.

Hemen beti esan ohi dugu, nora edo hara joan, alde guztietan agertuko dela mondragotarren bat; eta hara, bada, hemen ere non dagoen gure herrikidea, lekuko berezi

moduan, guri gertakizunaren berri emateko! Eskuinean dagoen gizon mardul eta patxadazkoa, eskuetan txapela eta leher-tu beharrean duen txalekoaz, Benito Riviere Olaizola da, durangarra izatez, baina Mondragoen gaztetatik bizi zena. "Txotxuena" deitzen zioten eta oraingo Riviere, Mendizabal eta Aranbarritarren aitona zen.

Esan bezala, Durangon jaio zen, 1868ko urtarrilaren 12an.

Bakoitzak kontuak atera ditzala zein urtekoa izan daitekeen argazki hau. Ah! Eta mirakulua gezurra izan omen zen: han ez zegoen ez itsurik, ez antzekorik, norbaiten trikimailuren bat besterik ez. Horrelaxe kontatu digu gure berriemaileak.

Hutsean gelditzen dira Maritxu Kajoirenak!

*Argazkia eta berriemailea:
Conchi Riviere.*



LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

GRUPO **RK UZ**


ARETXABAETA

ARRASATE

Oparia

EROSKETA DOHAIN



Telebista-Bideoa-Soinua-
Banatzaile ofiziala **expert** 

Andra Mari Auzunea, 1 • Tel. / Faxe: 943 79 10 97
ARETXABAETA



Etterako altzariak-
Diseinua-Dekorazioa

Araba etorbidea 20 • Tel. / Faxe: 943 79 23 51
ARETXABAETA



Banatzaile ofiziala
FAGOR 

Mitarte 3 • Tel. / Faxe: 943 77 04 55
ARETXABAETA



Etterako altzariak-
Diseinua-Dekorazioa

Araba Etorbidea 5 • Tel. / Faxe: 943 79 41 82
ARRASATE

Zenb. 00000

Zenbaki honekin parte hartuko duzu

Aretxabaletako **Arkauz Altzariaken** (Araba Ibilbidea, 20)
2000.eko uztailaren 1ean eta irailaren 30ean,
arratsaldeko 20:00etan egingo den zozketan.

Zozketa bakoitzeko saridunak DOHAINEKO EROSKETA izango du opari
(500.000 pta.rainoko erosketa).

Erosketaren zenbatekoa boletoan dago zehaztuta.

Erosketaren zenbatekoa:

(gutxieneko erosketa 80.000 pta.takoa)

--	--	--	--	--	--	--	--

pta.



RENAULT Scénic RX4

Zatoz probatzera!



MECA

ARRASATE

Tel. 943 51 91 65

BERGARA

Tel. 943 76 40 68

TOLOSA

Tel. 943 65 28 43